


# EUSKADIKO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ILDO ESTRATEGIKOAK • 2013-2016

Ebaluazio txostena  
2017ko urtarrila



# EUSKADIKO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ILDO ESTRATEGIKOAK • 2013-2016

Ebaluazio txostena  
2017ko urtarrila

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2017ko martxo

Ale-kopurua: 110 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Osasun Saila

Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/Donostia-San Sebastián, 1-01010 VITORIA GASTEIZ

Impresión: Eusko Jaurlaritzaren Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua

Depósito Legal: VI 10-2017

# AURKIBIDEA

|   |           |
|---|-----------|
| <b>AURKIBIDEA</b> .....   | <b>3</b>  |
| <b>SARRERA</b> .....  | <b>5</b>  |
| Koordinazio soziosanitarioa eta haren jarduera .....                                      | 5         |
| <b>BALORAZIO Kuantitatiboa</b> .....  | <b>6</b>  |
| 1I: Zerbitzu soziosanitarioen zorroa .....  | 6         |
| 1. Proiektua: Zerbitzu soziosanitarioen zorroaren dekretua.....                           | 6         |
| 2I: Informazio eta komunikazio soziosanitarioko sistema .....                             | 9         |
| 2. Proiektua: Arreta Soziosanitarioko Ildo Estrategikoak.....                             | 11        |
| 3. Proiektua: Web-atari soziosanitarioa.....  | 13        |
| 4. Proiektua: Baliabide soziosanitarioen mapa .....                                       | 15        |
| 5. Proiektua: Osabide zaharren egoitzetan .....   | 18        |
| 6. Proiektua: Balorazio soziosanitariorako tresna (RAI) .....                             | 21        |
| 7. Proiektua: Lehen mailako arreta soziosanitarioa garatzea .....                         | 24        |
| 8. Proiektua: Ikuspegi etiko-asistentziala.....   | 26        |
| 3I: Akordio soziosanitarioak formalizatzea .....  | 29        |
| 9. Proiektua: Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretua .....                 | 30        |
| 10. Proiektua: Lurraldeko batzorde soziosanitarioak eta lurralde-plan<br>operatiboak..... | 32        |
| 11. Proiektua: Finantzaketa egonkorreko markoa .....                                      | 34        |
| 4I: Arreta soziosanitarioa xede-kolektiboetan .....                                       | 36        |
| 12. Proiektua: Nahasmendu mentala.....  | 37        |
| 13. Proiektua: Bazterketa eta babesgabetasun arriskua.....                                | 40        |
| 14. Proiektua: Ezgaitasuna eta/edo mendekotasuna .....                                    | 44        |
| 15. Proiektua: Arreta bereziaren beharizana daukaten umeak.....                           | 47        |
| 16. Proiektua: Beste kolektibo batzuk.....  | 49        |
| 5I: Ikerketa eta berrikuntza soziosanitarioa .....  | 51        |
| 17. Proiektua: Etorbizi proiektuen jarraipena eta itxiera.....                            | 52        |
| 18. Proiektua: Etorbizi proiektuen ebaluazioa.....  | 54        |
| 19. Proiektua: Ezagutzak besterentzea eta hedatzea .....                                  | 56        |
| <b>BALORAZIO KUALITATIBOA</b> .....   | <b>58</b> |
| <b>ONDORIOAK</b> .....  | <b>59</b> |
| <b>1. ERANSKINA. Anlisi kualitatiboa. Galdeketa</b> .....                                 | <b>61</b> |



# SARRERA

## Koordinazio soziosanitarioa eta haren jarduera

Euskadiko arreta soziosanitarioaren 2013-2016ko ildo estrategikoak (hemendik aurrera, EASIE) bokazio pragmatiko eta operatiboarekin diseinatu zituzten, euskal arreta soziosanitarioak berezkoak dituen balioetatik eta ikuspegi estrategikotik abiatuta.

Honako helburu honekin sortu zen: “arreta soziosanitariorako eredu eraginkor, koordinatu eta jasangarri bat garatzea, pertsona bere bizi-proiektuko ardatz izanda, eta Euskadiko botere publikoen konpromisoari erantzutea”.

Ekintzak zituzten bost ildo estrategiko proposatu zituzten, eta 2013 eta 2016 bitartean garatu, 19 proiektu operatiboren bidez.

Dokumentu honek, lehenik eta behin, arestian aipatutako proiektuen edukia deskribatuko du, ikuspegi kuantitatibo batetatik. Halaber, lanean aritu diren lantaldeak eta horiek txosten hau sortu den arte lortutako garapen-maila deskribatuko du, bai eta horiek izandako oztopo eta erraztaileak ere. Bigarrenik, lantalde soziosanitarioak EASIEtan egindako lanarekiko izan duen gogobetetze-mailaren hurbilketa kualitatibo eta subjektiboa aurkeztu du dokumentuak.

# BALORAZIO KUANTITATIBOA

## 11: Zerbitzu soziosanitarioen zorroa

### 1. Proiektua: Zerbitzu soziosanitarioen zorroaren dekretua

#### LABURPENA

1. Ildo estrategikoak zortzi ekintza aurreikusi zituen, eta horietatik bi lortzeke daude oraindik.

Aurrekoari lotuta, zerbitzu soziosanitarioen zorroaren definizioak **% 75eko betetze-maila** izan du txosten hau argitaratu dugun egunera arte.

| Eginkizunaren izena              | Betetze %   |
|----------------------------------|-------------|
| <b>11 ZERBITZU-ZORROA</b>        | <b>% 75</b> |
| 1.1. LANTALDEA SORTU ETA DEITZEA | % 100       |
| 1.2. TALDEAREN LANA              | % 100       |
| 1.3. ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA   | % 100       |
| 1.4. AGENTEEI KONTSULTATZEA      | % 100       |
| 1.5. BEHIN BETIKO ZIRRIBORROA    | % 100       |
| 1.6. TXOSTEN JURIDIKOA           | % 0         |
| 1.7. ASEK-RI KONTSULTATZEA       | % 100       |
| 1.8. ASEK ONARTZEA               | % 0         |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

#### HELBURUA

Lantaldeak koordinazio soziosanitarioen lurralde-egiturekin antolatu eta dinamizatzea, eta zerbitzu soziosanitarioen zorroaren dekretuaren zirriborroa sortzea.

#### LANTALDEA

Proiektu honetan, hauek parte hartu dute: koordinazio soziosanitarioko taldeak, hiru Lurralde Historikoetako osasun eta gizarte-zerbitzuen arloko koordinatzaile soziosanitarioek, hiru foru-aldundietako Gizarte Ekintzetako Zuzendaritzako arduradunek eta EUDELek proposaturiko ordezkari batek.

## MUGARRIAK ETA ERAGINA


### Zerbitzu Soziosanitarioen Zorroaren Dekretua

Hasiera: 2013

Amaiera: 2016

#### Mugarriak

1. Lantaldea osatzeko bilera egitea
2. Dekretuaren zirriborroa idaztea
3. Balioesteko eta jarraipena egiteko bilerak
4. Zerbitzu Juridikoek aztertzen dute
5. Zerbitzu Soziosanitarioen Zorroaren Dekretua onartzea



### Eragina

- Zerbitzu Soziosanitarioen Zorroaren Dekretuaren lantaldea eratzea.
- Dekretuaren zirriborroa idaztea eta hori onartzeko beharrezko dokumentazio tekniko-administratiboa.
- Zerbitzu Soziosanitarioen Zorroaren Dekretua onartzea.

## GARAPEN-MAILA

1. Ildo Estrategikoaren proiektu nagusia zerbitzu soziosanitarioen zorroa definitzea izan da, eta **% 75eko betetze-maila** lortu du.

Legealdi honetan, ikusi dugu zerbitzu soziosanitarioen zorroaren dekretua onartzea zaila dela, eta argi geratu da beharrezkoa dela instituzioen arteko babes eta adostasuna duen finantzaketa-eredu soziosanitario oso bat definitzea eta horretan lan egitea.

Horrenbestez, eta, zorroaren baliabide eta zerbitzuen osagai nagusiak argi definitu diren arren, hurrengo legealdian, zorroaren dekretua onartu eta hura osatuko duen finantzaketa-eredua definitu beharko da.

*Ikus Laburpena ataleko taula.*

## OZTOPOAK

- Zehazki soziosanitarioak diren baliabideak egituratzeko zailtasuna.
- Gizarte-zorroan eta zorro soziosanitarioan eskura dauden errekurtsioak elkarri gainjartzea.
- Izapidetzeko epe administratibo luzeak.



## **ERRAZTAILEAK**

- Lurralde-eragile nagusien parte-hartze aktiboa.
- Lantalde proaktibo baten sorrera, eta horren barruan kalitatezko eztabaidak sortu izana.

## **EGITEKO DAUDEN EKINTZAK**

- Zerbitzu eta prestazio soziosanitarioen finantzaketa-ereduaren instituzioen arteko definizioa eta adostasuna.
- Txosten juridikoaren behin betiko zirriborroa.
- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak (ASEK) zorroaren dekretua onartzea.

## 2l: Informazio eta komunikazio soziosanitarioko sistema

### LABURPENA

2. Ildo Estrategikoak bost ekintza aurreikusi zituen. Horietako bik **% 100eko betetze-maila izan dute**; Ildo Estrategiko Soziosanitarioak sortzeak eta komunikazio-plana egiteak, hain zuzen ere. Komunikazio-planari dagokionez, betetze-mailak erreferentzia egiten dio ekintza horretan kokatutako errekurtsu soziosanitarioen mapa sortzeari. % 100eko betetze-maila izan du.

Hirugarren ekintzari dagokionez, Historia Soziosanitarioaren garapenak bi tresna ezartzeko beharra aurreikusten du: OSABIDE zaharren egoitzetan, eta balorazio soziosanitariorako tresna (RAI). Aurrekoa kontuan harturik, ekintza horrek **% 95eko betetze-maila** izan du.

4. eta 5. ekintzek, hots, lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeen garapenak eta ikuspegi etiko-asistentzialak, ez dute horrenbesteko betetze-mailarik; **% 79koa eta % 50ekoa**, hurrenez hurren.

Talde soziosanitarioei dagokienez, aurrerapausoak egin dira erreferenteak identifikatzeko lanetan eta RAI n inplikaturiko profesional asistentzialen kopuruaren hedapenean, eta ulertu da prozesu horrek lehen mailako arreta soziosanitarioa sortzen lagunduko duela. Horrela, ekintza horren betetze-mailaren gutxi gorabeherako balioespena egin dute. Hura arestian aipaturiko ehunekoa da (**% 79**).

Ikuspegi etiko-asistentzialari dagokionez, martxan jarri da etika asistentzialaren batzordeen komisio koordinatzailea (% 100). Hala ere, ez da aurrerapausorik egin aurretiazko borondateen erregistroan (% 0). Izan ere, arlo horretan, ez dago beharrezko garapen arauemailerik, eta, egoera hori borondatearen eta lan-batzordearen parte ez den arren, bertatik ondorioztatzen da ekintza hori. Batez beste, % 50eko betetze-maila izan du.

Aurrekoaren harira, **informazio eta komunikazio-sistema soziosanitario bat ezartzeak % 85eko betetze-maila** izan du txosten hau argitaratu den egunera arte.

| Eginkizunaren izena   | Betetzee %   |
|---|--------------|
| <b>2I INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>  | <b>% 85</b>  |
| <b>2013-2016 ALDIRAKO EUSKADIRAKO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ILDO ESTRATEGIKOAK</b>                          | <b>% 100</b> |
| 2013-2016 aldirako Euskadiko Ildo Estrategiko Soziosanitarioak sortzea                                      | % 100        |
| Dokumentua zabaltzea  | % 100        |
| Web-atari soziosanitarioa   | % 100        |
| <b>2.1. KOMUNIKAZIO PLAN SOZIOSANITARIOA</b>  | <b>% 100</b> |
| Baliabideen mapa eta prozedurak sortzea   | % 100        |
| Komunikazio plan soziosanitarioa sortzea (erakundeak ez zuen onartu)  | -            |
| Komunikazio plan soziosanitarioa hedatzea (erakundeak ez zuen onartu)                                       | -            |
| Komunikazio plana ebaluatzea (erakundeak ez zuen onartu)  | -            |
| <b>2.2. HISTORIA SOZIOSANITARIOA</b>  | <b>% 95</b>  |
| Historia soziosanitarioa ezartzeko eredia onartzea  | % 100        |
| Elkarreragingarritasuneko tresnak hautatzea (Osabide, RAI)  | % 100        |
| Osabide egoitzetan  | % 88         |
| - Osabide egoitzetan ezartzeko pilotua  | % 100        |
| - Proiektua ezartzeko pilotua abian jartzea   | % 100        |
| - Egoitzetan Osabide hedatzea   | % 50         |
| Proiektu pilotuaren ebaluazioa  | % 100        |
| Balorazio soziosanitariorako RAI tresna   | % 94         |
| - RAI ezartzeko pilotua (70 lizentzia)  | % 100        |
| - Proiektua ezartzeko pilotua abian jartzea   | % 100        |
| - RAI pilotua hedatzea  | % 76         |
| Proiektu pilotuaren ebaluazioa  | % 100        |
| <b>2.3. LEHEN MAILAKO ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATzea (ARRETA SOZIOSANITARIO INTEGRATUKO TALDEAK)</b>       | <b>% 79</b>  |
| Arreta soziosanitarioko prozesuaren kudeaketa-eredu asistentziala garatu eta onartzea                       | % 100        |
| Lurralde historiko bakoitzean arreta soziosanitarioko taldeak ezartzeko proiektu pilotua abian jartzea      | % 100        |
| Proiektu pilotuaren ebaluazioa  | % 100        |
| EAEen lehen mailako arreta soziosanitarioko lantaldeak hedatzea   | % 15         |
| <b>2.4. IKUSPEGI ETIKO-ASISTENTZIALA</b>  | <b>% 50</b>  |
| Etika-asistentzialeko batzorde eta komisioak koordinatzea   | % 100        |
| Esparru soziosanitarioko aurretiko ildoen erregistroak eta aurretiazko borondateen erregistroa koordinatzea | % 0          |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## 2. Proiektua: Arreta Soziosanitarioko Ildo Estrategikoak


### HELBURUA

Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Ildo Estrategikoen inguruko 2013-2016 dokumentua sortzea.

### LANTALDEA

Proiektu hau koordinazio soziosanitarioko taldeak garatu du.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA



### GARAPEN-MAILA

Jarraian ageri den taulan ikus dezakegun moduan, 2. Ildo Estrategikoaren lehen proiektua da Ildo Estrategiko Soziosanitarioak sortzea, eta **% 100eko betetze-maila** izan du.

2013. urtearen bukaeran, ikertu, idatzi eta onartu zuten dokumentu estrategikoa. Dokumentu hori 2014ko ekainean zabaldu eta aurkeztu zen, Gasteizen.

| Eginkizunaren izena  | Betetz e %   |
|--|--------------|
| <b>2I INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>   | <b>% 85</b>  |
| <b>2013-2016 ALDIRAKO EUSKADIRAKO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ILDO ESTRATEGIKOAK</b> | <b>% 100</b> |
| 2013-2016 aldirako Euskadiko Ildo Estrategiko Soziosanitarioak sortzea             | % 100        |
| Dokumentua zabaltzea   | % 100        |
| Web-atari soziosanitarioa  | % 100        |

\* **Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

## ERRAZTAILEAK

- Materia soziosanitarioaren inguruko lanaren ildoak sortzea.
- Euskadiko talde soziosanitarioa osatzea.
- Lankidetzazko eta konfiantzazko giroa sortzea.
- Babes politiko eta instituzionala lortzea.

### 3. Proiektua: Web-atari soziosanitarioa


#### HELBURUA

Koordinazio soziosanitarioko web-ataria sortu eta abian jartzea. Bertan, garatutako hainbat proiektu aurkezteko, besteak beste. Web-atari soziosanitarioa sortzea ez zegoen Ildo Estrategiko Soziosanitarioen ekintzen barnean, haren garapena 2. Ildo Estrategikoan zehazten den arren. Euskadiko ekintza soziosanitarioko komunikazio eta informazio-gune gisa aurkeztu dute.

#### LANTALDEA

Proiektu hau koordinazio soziosanitarioko taldeak garatu du, eta atariaren sustatzaile eta definizioaren, kudeaketaren eta edukien sorreraren, bai eta webaren gestioaren arduradun ere izan da. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak diseinu teknikoa egin eta tresna hori abian jarri du, bai eta web-edukiak kudeatu ere. Halaber, Osasun Saileko eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko komunikazio-arduradun izan da.

#### MUGARRIAK ETA ERAGINA



## GARAPEN-MAILA

Atari hori koordinazio soziosanitarioari eskainitako Euskadiko lehen orri korporatiboa da. 2015. urteko lehen hiruhilekoan hasi, eta 2016. urte erdialdean, **% 100eko betetze-maila** izan du.

2016. urteko urrian, ataria profesionalen eta inplikaturiko eragileen artean aurkeztu eta hedatu zuten.

| Eginkizunaren izena  | Betetze %    |
|--|--------------|
| <b>21 INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>   | <b>% 85</b>  |
| <b>2013-2016 ALDIRAKO EUSKADIRAKO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ILDO ESTRATEGIKOAK</b> | <b>% 100</b> |
| 2013-2016 aldirako Euskadiko Ildo Estrategiko Soziosanitarioak sortzea             | % 100        |
| Dokumentua zabaltzea   | % 100        |
| Web-atari soziosanitarioa  | % 100        |

\* **Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

## OZTOPOAK

- Proiektua garatzeko finalista ez den finantzaketa-eredua.
- Ataria Jaurlaritzaren egituran kokatzeko zailtasuna. Izan ere, bi sailetan dago (Osasun Saila eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).

## ERRAZTAILEAK

- Inplikaturako profesionalen eta proaktiboen lantaldea sortzea.
- Jarduera soziosanitarioa eta bertan parte hartzen duten agenteak ezagutzera emango dituen gune izateko aukera.
- Tabletekin eta mugikorrekin nabigatzeko aukera eskaintzen duen diseinu malgua.
- Esparru soziosanitariotik kanpo dauden agenteekin sinergiak ezartzea.

## 4. Proiektua: Baliabide soziosanitarioen mapa

### HELBURUA

Baliabide soziosanitarioen mapa egitea, euskal testuinguru soziosanitarioan eskura dauden baliabideak ikusarazteko eta, horrela, profesionalak eta herritarrek horien berri izan dezaten.


### LANTALDEA

Proiektu hau koordinazio soziosanitarioak garatu du. Hura da lantaldeen sustatzaile eta antolatzaile, eta Lurralde Historiko bakoitzetik informazioa bildu eta sistematizatzear arduratu da. EJI arduratu da datu-baseetako txantiloiak, baliabide bakoitzaren web-fitxa eta baliabide-bilatzaile bat sortzeaz (lokalizazio-mapa barne) eta mapa soziosanitarioen edukiak Euskadiko atari soziosanitarioan argitaratzeaz. Mapa bakoitza egiteko, hiru lantalde eratu zituzten:

- Arabako lantaldea Arabako Foru Aldundiko, Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritzako, Osakidetzako eta Gasteizko Udaleko profesionalak osatzen dute, eta Arabako baliabideen inguruko informazioa emateaz arduratzen da.
- Bizkaiko lantaldea Bizkaiko Foru Aldundiko, Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritzako, Osakidetzako eta Eudeleko profesionalak osatzen dute, eta Bizkaiko baliabideen inguruko informazioa emateaz arduratzen da.
- Gipuzkoako lantaldea Gipuzkoako Foru Aldundiko, Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritzako, Osakidetzako eta Donostiako Udaleko profesionalak osatzen dute, eta Gipuzkoako baliabideen inguruko informazioa emateaz arduratzen da.



## MUGARRIAK ETA ERAGINA



## GARAPEN-MAILA

Baliabide soziosanitarioen mapa sortzea komunikaziorako egitasmo soziosanitarioa definitzeko ekintzen barruan kokatu zen. Hala ere, egitasmo hori sortuko zutela ezeztatu zuten, eta baliabide soziosanitarioen mapa izan zen produktu bakarra.

Hori dela eta, proiektu horren **betetze-maila** baliabideen mapa sortzean oinarritzen da (% 100).

| Eginkizunaren izena   | Betetze %    |
|---|--------------|
| <b>2I INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>                                | <b>% 85</b>  |
| <b>2.1. KOMUNIKAZIO PLAN SOZIOSANITARIOA</b>                          | <b>% 100</b> |
| Baliabideen mapa eta prozedurak sortzea                               | % 100        |
| Komunikazio plan soziosanitarioa sortzea (erakundeak ez zuten onartu) | -            |
| Komunikazio plana hedatzea (erakundeak ez zuten onartu)               | -            |
| Komunikazio plana ebaluatzea (erakundeak ez zuten onartu)             | -            |

\* **Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

## OZTOPOAK

- Proiektua garatzeko finalista ez den finantzaketa-eredua.
- Mapak jaso beharreko baliabide soziosanitarioak bahetzeko zailtasuna. Alde handiak daude Lurralde Historikoaren arabera.
- Eskura dauden baliabideak ordenatu eta aztertzeko konplexutasuna.
- Erabilitako datu-baseetako formatu eta bertsioen inguruko trabak.

## **ERRAZTAILEAK**

- Lurralde Historiko bakoitzean nagusi diren agenteekin hiru lantalde sortzea.
- Baliabide soziosanitarioen kontsultarako eta geolokalizatorako tresna, eta herritar eta profesionalen eskura informazio interesgarria jartzea.
- Beste webgune batean, baliabideen mapa instalatzea ahalbidetzen duen Widget programa garatzea.
- Esparru soziosanitariotik kanpo dauden agenteekin sinergiak ezartzea.

## 5. Proiektua: Osabide zaharren egoitzetan

### HELBURUA

"OSABIDE" Historia Kliniko Digitala zaharren egoitzetara hedatzea, horrela osasun-arloko profesionalen arteko komunikazioa errazteko eta pazientearen segurtasuna bermatzeko, historia kliniko bakar baten bitartez. 2. Ildo Estrategikoaren esparruan kokatzen da zaharren egoitzetan Osabide eta Presbide ezartzeko proiektua. Historia Soziosanitarioa garatzeko bideratuta dauden proiektuetako bat da hori.

### LANTALDEA

Proiektu hau koordinazio soziosanitarioko taldeak garatu du. Horretan, Osakidetza, Osasun Saileko, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietako kideek eta zaharren egoitzetako arduradunek hartu dute parte, kasu bakoitzean.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA


#### Osabide eta Presbide egoitzetan

Hasiera: 2013ko uztaila

Amaiera: 2016ko abendua

#### Mugarriak

1. Lantaldea osatzea
2. Proiektua definitzea eta zenbaterainokoa den balioztatzea
3. Proba-fasea (hogei egoitzatan), eta egin litezkeen hobekuntzak detektatzea
4. Egindako hobekuntzak zabaltzen hastea (Presbide eta Egoitzen Asistentziarako Kudeaketaren arteko elkarrengarritasuna)
5. Osabide eta Presbide ezarrita, lortutako estaldura-maila > % 35 izan zen 2016ko uztailan eta > % 50 izan zen 2016ko abenduan



#### Eragina

- Osabide eta Presbide lantaldeak egoitzetan.
- Proiektua definitzea eta ASEK onartzea.
- Pilotua abian jartzea eta komunikabideetan zabaltzea.
- Foro zientifiko eta profesionaletan zabaltzea.
- O. eta P. duten egoitzetako profesional asistentzialen %100 Osabiden prestatzea.
- Elkarrengarritasuna SIGECArekin 2015eko abe.
- Elkarrengarritasuna RESIPLUSekin 2016ko urt.
- Elkarrengarritasuna egoitzetan dauden gainerako sistemekin 2016ko urr.

## GARAPEN-MAILA

Proiektu hau proiektu pilotu gisa garatu zuten. 2014ko abuztuan hasi zuten, Lurralde Historiko bakoitzeko zahar-egoitza batean, eta 2015eko azaroaren 10ean bukatu zuten. Guztira, hogeitazahar-egoitzatan gidatu zuten (Arabako lau egoitzatan, Bizkaiko hamarretan eta Gipuzkoako seitan). Proiektu pilotu horrek, zaharren egoitzen esparruan, era askotarikoak diren ahalik eta testuinguru gehienei erantzuteko asmoa zuen (publikoak, pribatuak, mediku propioak edo Osakidetza medikuak zituena...), eta, halaber, ahalik eta leku gehien betetzeko. Hala, ehun ohe baino gehiago zituzten zaharren egoitzei eman zieten lehentasuna.

Egun, Osabide zahar-egoitzetan hedatzen ari da oraindik ere, eta jarritako helburuak **% 88ko betetze-maila** izan du.

Hala ere, azpimarratu beharra dago proiektu pilotua bukatzen denean lantaldeak lanean jarraituko duela, Historia Klinikoa Euskadiko zaharren egoitza guztietan jartzen den arte. Horren harira, Farmazia Zuzendaritzak eta Osasun Sailak zaharren egoitza guztietara E-rezeta hedatzeko duten ekimenarekin sinkronizatu eta koordinatu dira. Prozesu horrek proiektuaren hedapena bizkortu eta lagundu du.

Halaber, proiektuak hobekuntza tekniko eta teknologikoak proposatu ditu (Osabide osoa, komunikazioko erantzun sinpleagoak...), eta horiek aurrera eramanean dituzte, proiektuaren garapenak hori posible egin duen heinean.

| Eginkizunaren izena  | Betetze %   |
|--|-------------|
| <b>21 INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>                     | <b>% 85</b> |
| <b>2.2. HISTORIA SOZIOSANITARIOA</b>                       | <b>% 95</b> |
| Historia soziosanitarioa ezartzeko eredia onartzea         | % 100       |
| Elkarreragingarritasuneko tresnak hautatzea (Osabide, RAI) | % 100       |
| Osabide egoitzetan   | % 88        |
| - Osabide egoitzetan ezartzeko pilotua                     | % 100       |
| - Proiektua ezartzeko pilotua abian jartzea                | % 100       |
| - Egoitzetan Osabide hedatzea                              | % 50        |
| Proiektu pilotuaren ebaluazioa                             | % 100       |
| Balorazio soziosanitariorako RAI tresna                    | % 94        |
| - RAI ezartzeko pilotua (70 lizentzia)                     | % 100       |
| - Proiektua ezartzeko pilotua abian jartzea                | % 100       |
| - RAI pilotua hedatzea                                     | % 76        |
| Proiektu pilotuaren ebaluazioa                             | % 100       |

\* **Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

## OZTOPOAK

- Euskal Sarea sare korporatibora konektatzeko zailtasun teknikoak.
- Aldeak zaharren egoitzetako profesional batzuen eta besteen parte-hartzean.
- Hitzarmenak prestatzeko beharrezkoa den dokumentazioa lortzeko zailtasunak. Horrek, zaharren egoitzetan, konexio-prozesua atzeratu du.

## **ERRAZTAILEAK**

- Osasun Saileko laguntza teknikoa eta haren gidaritza.
- Informatika zerbitzuaren eta Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren babesa.
- E-rezetaren hedapen-proiektua, zaharren egoitzen esparrura.
- Zaharren Egoitzetako Informazio-sistemaren hornitzaileen sistema informatikoak egokitzea, Presbiderekin elkarreragingarritasuna ahalbidetzeko.

## 6. Proiektua: Balorazio soziosanitariorako tresna (RAI)

### HELBURUA

Euskal testuinguru soziosanitarioan, gizarte eta osasun-zerbitzuen sistemetako profesionalei hizkuntza komun bat ezartzea eta premia soziosanitarioak dituzten pertsonen balorazio bateratua egitea ahalbidetzen dien tresna ezartzea.

### LANTALDEA

Proiektu hau garatzeko, koordinazio soziosanitarioko taldea eta tresnaren erabileraren implementaziorako eta prestakuntzarako lider eta euskarriaren emalea behar izan dituzte; bai eta EUDEL eta gizarte eta osasun-arloko zuzendari, gerente eta arduradunak ere. Lehen fasean, profesional hauek hartu zuten parte: hogeita hamar udaletako, hogeita hamar osasun zentrotako, sei ospitaleko larrialdi zerbitzuetako, hiru foru-aldundietako eta entitate pribatu bateko profesionalek.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA


#### Elkarren eragingarritasuna duten InterRAI-CA sistema soziosanitarioak

Hasiara: 2015eko iraila

Amaiera: 2016ko abendua

#### Mugarriak

1. Proiektua definitzea eta zenbaterainokoa den kalkulatzeko.
2. Informazio eta prestakuntza-materiala sortzea
3. Informazio-saioak 3 Lurralde Historikoetan
4. Prestakuntza eta ezarpen-saioak, taldeentzako laguntza
5. Tresna erabiltzea – talde soziosanitarioak sortzea



#### Eragina

- 70 erabiltzaile prestatzea.
- 70 lizentzia ezartzea eta erabiltzea.
- Arretarako 140 talde soziosanitario sortzea.
- Arreta soziosanitariorako protokolo koordinatu berrien sorrerari mesede egitea.
- Euskal talde soziosanitarioen testuinguruan ezarritako tresnaren esperientziaren diagnostiko-txostena sortzea.

### GARAPEN-MAILA

Osabiderekina batera, balorazio soziosanitariorako tresna ezartzeko proiektua Historia Soziosanitarioa garatzera bideratutako proiektua da.

Ikerketa-proiektu batetik sortu zen InterRAI CA balorazio soziosanitariorako tresna. Proiektu hori Etorbizik finantzatu zuen, osasun eta gizarte-zerbitzuen sistemetako profesionalentzat hizkuntza komun baterako oinarriak ezarri zituen, premia soziosanitarioak dituzten pertsonen balorazio bateratua egitea erraztuko zuen tresna identifikatu eta balioesteko.

Ondorioz, hainbat tresna baloratu ostean, InterRAI CA tresna erabiltzea erabaki zuten. Izan ere, hori partekatutako produktu soziosanitarioak lortzeko aukera indartsu, eraginkor eta efektibotzat dute.

Proiektu hau 2015ean finkatu zuten, eta tresna EAEn zabaltzen hasi zen. Proiektu horrek, halaber, konponbidea ematen dio bi sistemen elkarreragingarritasunari.

Horrela, 2015. urtetik hainbat jardunaldi egin dituzte, tresna hori ezagutzera eman eta profesionalak tresna erabiltzeko trebatzeko.

2016ko maiatzaren 3aren eta 5aren bitartean, softwarea (Raisoft) hornitu zuen enpresako lantalde tekniko eta exekutiboa Euskadira etorri zen, proiektuaren garapena zuzenean ezagutu eta hobekuntzak egiten hasteko. Bisita horren harira, bi lantalde sortu zituzten Raisofteko talde teknikoarekin eta tresnaren erabiltzaileekin, hobetu beharreko eremuak identifikatzeko.

Ildo horretatik, Raisofteko lantalde teknikoak, bi sailletako adituek eta lantalde soziosanitarioak beste lantalde bat sortu zuten, osasun eta gizarte-zerbitzuetako sistemen elkarreragingarritasunean aurrera egiteko.

Gaur arte, proiektu horrek **% 94ko betetze-maila** izan du, eta, 2017. urtean, proiektua zabaltzeko bigarren fasea egiteko lanean ari dira.

| Eginkizunaren izena  | Betetze %   |
|--|-------------|
| <b>21 INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>                     | <b>% 85</b> |
| <b>2.2. HISTORIA SOZIOSANITARIOA</b>                       | <b>% 95</b> |
| Historia soziosanitaria ezartzeko eredia onartzea          | % 100       |
| Elkarreragingarritasuneko tresnak hautatzea (Osabide, RAI) | % 100       |
| Osabide egoitzetan   | % 88        |
| - Osabide egoitzetan ezartzeko pilotua                     | % 100       |
| - Proiektua ezartzeko pilotua abian jartzea                | % 100       |
| - Egoitzetan Osabide hedatzea                              | % 50        |
| Proiektu pilotuaren ebaluazioa                             | % 100       |
| Balorazio soziosanitariorako RAI tresna                    | % 94        |
| - RAI ezartzeko pilotua (70 lizentzia)                     | % 100       |
| - Proiektua ezartzeko pilotua abian jartzea                | % 100       |
| - RAI pilotua hedatzea                                     | % 76        |
| Proiektu pilotuaren ebaluazioa                             | % 100       |

\* **Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

## OZTOPOAK

- Proiektua garatzeko finalista ez den finantzaketa-eredua.
- Proiektua maila guztietan identifikatu eta helarazteko zailtasuna (makro, meso eta mikro).
- Agente nagusiek hainbat modutan parte-hartu izana, intentsitateari eta elkarlanari erreparatuz.
- Tresnan legitimazio eta konfiantza-maila onargarria, baina, oraindik ere hobetu beharrekoa, tresna guztiz garatu dadin.
- Hainbat kultura, eta sentsibilitate sozial eta sanitario.
- Ikasketa-kurbaren eta haren epe luzeko emaitzen ziurgabetasuna, meso/mikro mailetan.
- Partekatutako ikuspegi bat giltzatu eta helarazteko konplexutasuna.

## ERRAZTAILEAK

- Arretarako egitasmo bateratuak ezartzeko erronka.
- Profesionalen eta erreferenteen sare soziosanitarioa ezartzeko beharra, mikro/meso mailetan.
- Tresna elkarreragilea berrikusi, aldatu eta eguneratu izana, profesionalen planteamendura hurbiltzeko.



## 7. Proiektua: Lehen mailako arreta soziosanitaria garatzea


### HELBURUA

Koordinazio soziosanitaria eta protokoloak sortzen lagunduko duen gida definitzea, eta Arreta Soziosanitariarako Taldeak sortzea.

### LANTALDEA

Proiektu honen garapena koordinazio soziosanitarioko taldeak gidatu du, eta horren garapenerako idazkaritza teknikoan jardun du. Horretan hauek parte hartu dute: protokolo definitu eta operatibo bat duten euskal udal, foru-aldundi eta Erakunde Sanitario Integratuek.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA



### GARAPEN-MAILA

2. Ildo Estrategikoaren proiektu nagusietako bat da lehen mailako arreta soziosanitario baten garapena indartzea, eta hori premia soziosanitarioak dituzten pertsonen sarbidetzat jo dute.

Ikuspuntu horretatik, 2013 eta 2014 bitartean, arreta soziosanitariarako protokoloak garatzeko gida sortu zuten, eta horrek lehen mailako arreta

soziosanitarioko lantaldeen sorrera erraztea zuen helburu. Protokolo hori erreferentziarako materialtzat hartu dute ESlekin egindako programetako adierazle soziosanitarioak sortzeko.

ESlak sinatutako protokolo kopurua kontuan izanik, horrek **% 79ko betetze-maila** izan duela balioztatu da, RAiren bitartez kasu soziosanitarioak baloratu dituzten profesionaletan oinarrituz.

| Eginkizunaren izena  | Betetze %   |
|--|-------------|
| <b>2I INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>   | <b>% 85</b> |
| <b>2.3. LEHEN MAILAKO ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATZEA (ARRETA SOZIOSANITARIO INTEGRATUKO TALDEAK)</b>  | <b>% 79</b> |
| Arreta soziosanitarioko prozesuaren kudeaketa-eredu asistentziala garatu eta onartzea                  | % 100       |
| Lurralde historiko bakoitzean arreta soziosanitarioko taldeak ezartzeko proiektu pilotua abian jartzea | % 100       |
| Proiektu pilotuaren ebaluazioa   | % 100       |
| EAEEn lehen mailako arreta soziosanitarioko lantaldeak hedatzea  | % 15        |

**\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

## OZTOPOAK

- Oraindik ere kultura soziosanitarioa eraikitzeko beharra dago, eta osasun eta gizarte-zerbitzuen sistemetako profesionalek hainbat helburu dituzte.
- Kasuen kudeaketa eta ardua bateraturako denbora urria.
- Elkarreragingarritasunik gabeko sistema teknologikoak.
- Desbideratze-eredu oso hedatua vs koordinazio-eredu hasiberria.
- Gizartean, zerbitzuen eta instituzioen arteko zatiketa.

## 8. Proiektua: Ikuspegi etiko-asistentziala

### HELBURUA

Gune komun bat sustatzea, osasun arloko eta Euskadiko esku-hartze sozialeko etika-asistentzialeko batzordeak koordinatzeko, eta protokolo eta lanerako prozedurak partekatu eta homogeneizatzea, eta, etikan, prestakuntza zein ikerketa-jarduera sustatzea.

### LANTALDEA

Proiektu hau koordinazio soziosanitarioko taldeak garatu du.

Batzorde horrek hogeiki kide izango ditu gehienez ere, eta beti mantenduko da osasun eta gizarte-zerbitzuen arloko batzorde etikoetako ordezkarien arteko parekotasuna. Honako batzorde hauetako partaideek osatzen dute:

- Arabako Unibertsitate Ospitaleko Etika Asistentzialeko Batzordea
- Osasun Mentaleko Etika Asistentzialeko Batzordea
- Arabako Lehen Mailako Arretako Etika Asistentzialeko Batzordea
- Arabako Esku-hartze Sozialeko Etika Batzordea
- Barrualde-Galdakao ESIko Etika Asistentzialeko Batzordea
- Guruzetako Unibertsitate Ospitaleko Etika Asistentzialeko Batzordea
- Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Etika Asistentzialeko Batzordea
- Bizkaiko Lehen Mailako Arretako Etika Asistentzialeko Batzordea
- Gorabide Esku-hartze Sozialeko Etika Batzordea
- Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko Etika Batzordea
- Donostialdea ESIko Etika Asistentzialeko Batzordea
- Gipuzkoako Esku-hartze Sozialeko Etika Batzordea

EAEko koordinatzaile soziosanitarioak izango dira presidente.

## MUGARRIAK ETA ERAGINA


### Etika asistentzialeko batzorde eta komisiok koordinatzea

Hasiera: 2013ko azaroa

Amaiera: 2016ko abendua

#### Mugarriak

1. Partaideekin biltzea, beharrak eta aukerak definitzeko
2. ASEKek etika-batzordeetarako komisio koordinatzaile baten sorrera proposatzea eta onartzea.
3. Komisia formalki osatzea eta horren presidentetzarako edo koordinaziorako pertsonak eta idazkaria hautatzea
4. Funtzionamendua azalduko duen araudia sortzea
5. Informazio eta kolaboraziorako plataforma sortu eta mantentzea



### Eragina

- Komisia sortzea akreditaturik dauden etika-batzordeetako kideen parte-hartzearekin.
- Hainbat batzordek sortutako materiala biltzea, dokumentu-base bateratu bat izateko.
- Komisioaren barruan lantaldeak sortzea, lan jakin batzuk egiten hasteko.
- Esparru soziosanitarioko profesionalak etikan prestatzeko ekimena sustatzea.
- Arreta soziosanitarioan lagungarri izan daitezkeen protokoloak eta kontsentsu-dokumentuak sortzea.

## GARAPEN-MAILA

2. Ildo Estrategikoko azken proiektuak ikuspegi etiko-asistentzian jarri du arreta, eta **% 50eko betetze-maila** lortu du. Etika-asistentzialeko batzordeak koordinatu dira (% 100), baina ez aurretiazko borondateen erregistroei dagokienez (% 0).

| Eginkizunaren izena   | Betetze %   |
|---|-------------|
| <b>2I INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>  | <b>% 85</b> |
| <b>2.4. IKUSPEGI ETIKO-ASISTENZIALA</b>   | <b>% 50</b> |
| Etika-asistentzialeko batzorde eta komisiok koordinatzea  | % 100       |
| Esparru soziosanitarioko aurretiko ildoen erregistroak eta aurretiazko borondateen erregistroa koordinatzea | % 0         |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## OZTOPOAK

- Zailtasunak izan dituzte, elkarrekin eta sarean lan egiteko plataforma garatzeko, eta batzorde horren partaide diren hainbat instituzio eta erakundeetako pertsonak plataforma hori eskura izateko.
- Ez da aurretiazko borondateen erregistroarekin koordinatzeko gizarte-zerbitzuen legea biltzen duen araudirik garatu, aldez aurreko argibideak sortzeko.

## ERRAZTAILEAK

- Etika Batzorde guztietan hautaturiko pertsonen interesa eta parte-hartzea.
- Proiektu komunetan aurrera egiteko adostasuna.
- Gure autonomia erkidegoan, gizarte-zerbitzuen esparrutik, etika-asistentzialaren garapena ahalbidetzen duen ikuspegia barne hartzen duten esku-hartze sozialeko batzordeak etengabe bermatzea.

### 3l: Akordio soziosanitarioak formalizatzea

#### LABURPENA

3. Ildo Estrategikoa akordio soziosanitarioak formalizatzeari dagokio, eta hiru ekintza nagusitan laburbil daiteke: Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren (3.1) Dekretua garatzea, lurraldeko batzorde soziosanitarioak eta egitasmo eraginkorrak mantentzea (3.2) eta finantzaketa egonkorreko markoa garatzea (3.3).

Azpimarratu beharra dago ildo hori idazten hasi zirenean, garai bateko baldintza nagusiek eragin handia izan zutela. Hala ere, hori aldatu da, ildoak ezartzeak testuinguru soziosanitarioaren inguruko informazioa gehitu duen heinean. Hori dela eta, planteamenduak desbideratu egin dira, eta beharrezko egitura juridiko, koordinatzaile eta operatiboak sortuko dituen kontsensu sendoko instituzio-esparrua eraikitzeke helburua hartu dute. Legealdi honetan ikasitakoari esker, hurrengoan, proiektatuko dira kontu horiek.

Zehazki, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretuaren garapena ildo estrategikoen etengabeko garapenarekin batera hazi da, eta, hainbat proposamen eta lantalderen ondoren, argi utzi du beharrezko dela arreta eta koordinazioko egitura soziosanitarioekin testuinguru-ikuspegi sendoagoa izatea. Hori dela eta, asko hurbildu dira, eta proiektuak **% 75eko betetze maila** izan du.

Lurraldeetako batzorde soziosanitarioei erreparatuz, Gipuzkoan eta Araban, alde zuzenetik eraberritzeak jarraitu dute funtzionatzen, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua arautzen duen dekretuan kabitzen ez diren arren. Ildo estrategikoen indarraldian, hiru egitasmo eraginkor egin dituzte (bat Lurralde Historiko bakoitzeko), eta, horrela, 3.2 ekintzak **% 66eko betetze-maila** izan du.

Finantzaketa egonkorreko markoaren garapena izan da ibilbide irregularrena izan duten proiektuetako bat, lurraldeen arteko aldeen ondorioz. Horrek % 25-% 50eko betetze-maila izan du. Hortaz, lurralde arteko batezbestekoa **% 38eko betetze-mailakoa** da.

Garrantzitsua da, puntu honetan, esparru soziosanitarioko finantzaketa-formulen inguruko planteamendu berritzailea egitea. Hori, halaber, etorkizuneko estrategia soziosanitariorako lehentasunezko auzia izango da.

Aurrekoari erreparatuz, 3. Ildo Estrategikoaren **betetze-maila % 60koa** da.

| Eginkizunaren izena  | Betetz e % |
|--|------------|
| 3L AKORDIO SOZIOSANITARIOAK FORMALIZATZEA                            | % 60       |
| 3.1. ASEK-EN LURRALDEKO BATZORDE SOZIOSANITARIOEN ARAUDIA GARATZEA   | % 75       |
| 3.2. LURRALDEKO BATZORDE SOZIOSANITARIOAK ETA PLAN ERAGILEAK SORTZEA | % 66       |
| 3.3. AGENTEEN FINANTZAKETA EGONKORREKO MARKOA GARATZEA               | % 38       |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## 9. Proiektua: Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretua


### HELBURUA

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretuaren zirriborroa egitea, bai eta hori argitaratzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia ere.

### LANTALDEA

Proiektu honen garapena koordinazio soziosanitarioko taldeak, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoak gidatu dute.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA



### GARAPEN-MAILA

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretua garatzea 3. Ildo Estrategikoko proiektu nagusietako bat dugu, akordio soziosanitarioak formalizatzeari dagokionez.

Horrela, legealdi honetan, aipatutako dekretua onartzeko hainbat ekintza aurrera eramán dituzten arren, argi utzi dute planteamendu integralagoen eta helduagoen beharra dagoela. Halaber, irismenean partzialegiak ziren eta onartuak izateko beharrezko kontsentsurik ere ez zuten hainbat proposamen baztertu dituzte. Horrenbestez, ikastaldi horren ostean, seguruenik, hurrengo legealdian hartuko dituzte erabakiak. Hori dela eta, proiektu horren **betetze-maila % 75koa** da.

| Eginkizunaren izena   | Betetz e %  |
|---|-------------|
| <b>3L AKORDIO SOZIOSANITARIOAK FORMALIZATZEA</b>                          | <b>% 60</b> |
| <b>3.1. ASEK-EN LURRALDEKO BATZORDE SOZIOSANITARIOEN ARAUDIA GARATZEA</b> | <b>% 75</b> |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## OZTOPOAK

- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan kontsentsua eraikitzeke beharra, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretua jarduera soziosanitarioaren elementu dinamizatzaile eta araugile gisa onartzeko.

## ERRAZTAILEAK

- Agente nagusien parte-hartze aktiboa.



## 10. Proiektua: Lurraldeko batzorde soziosanitarioak eta lurralde-plan operatiboak

### HELBURUA

Lurraldeko batzorde soziosanitario formalak sortzea eta hiru lurralde-egitasmo operatibo sanitarioak prestatzea (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), koordinazio soziosanitarioaren garapenean, erreferentziatza eta konpromisotza duten dokumentu gisa, bai eta, Lurralde Historiko bakoitzean, esparru soziosanitarioaren artikulazioa erraztu eta laguntzen duen tresna gisa ere.

Helburu hori lurraldeko batzorde soziosanitarioentzako estatus berriaren onspenaren mende dago, eta horiek gaitasungabeak dira egun. Garapena lurraldeko batzorde zaharren funtzionamendua kontuan hartuta ebaluatuko da. Araban eta Gipuzkoan, egitura mantendu dute batzorde zahar horiek.

### LANTALDEA

Proiektu hau Lurralde Historiko bakoitzeko lurraldeko koordinatzaile soziosanitarioek garatu dute, bai eta koordinazio soziosanitarioko taldeak ere. Berrikusteko eta laguntzeko ardura du azken horrek.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA


#### Lurraldeko Batzordeak eta Lurralde-plan Eragileak

Hasiera: Aurten

Amaiera: Aurten

#### Mugarriak

1. Araba eta Gipuzkoako Lurraldeko Batzordeak mantentzea
2. Lurraldeko koordinatzaile soziosanitarioko lantaldea antolatzea eta dinamizatzea, plan eragileak sortzeko
3. Plan eragileak sortzeko laguntza teknikoa
4. Helburu jakinak eta horiek ildo estrategiko soziosanitarioekin lerrokatuta dauden berrikustea



#### Eragina

- Hiru plan eragile (bat Lurralde Historiko eta urte bakoitzeko).
- Lurralde Historiko bakoitzeko esparru soziosanitarioan garatu beharreko programa eta ekintzen inguruko informazio estrategikoa zabaltzea.
- Horiek ezartzea eta lortzea, eta ekintza-markoa.

## GARAPEN-MAILA

Aipatu legez, lurraldeko batzorde soziosanitarioak eta lurralde-egitasmo operatiboak Araban eta Gipuzkoan garatu eta mantendu dira, batez ere. Lurraldeko koordinatzaileek urtero egiten dituzte plan operatiboak, eta, horietan, Lurralde Historiko bakoitzean garatu beharreko programen eta egiteko soziosanitarioen inguruko informazio estrategikoa agertzen da.

EASIEen indarraldian, hiru plan operatibo egin dituzte, gutxienez (bi Gipuzkoan eta bat Araban). 3.2 egitekoaren **betetze-maila % 66koa** izan da.

| Eginkizunaren izena  | Betetze % |
|--|-----------|
| 3L AKORDIO SOZIOSANITARIOAK FORMALIZATZEA                            | % 60      |
| 3.2. LURRALDEKO BATZORDE SOZIOSANITARIOAK ETA PLAN ERAGILEAK SORTZEA | % 66      |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## OZTOPOAK

- Lurralde Historiko bakoitzean egitasmo, proiektu eta koordinazio-egitura askotarikoak egotea.
- Lurraldeko batzorde soziosanitario formalak eratzeko ezintasuna.
- Helburu batzuk EASIEen ezarritako beste batzuekin elkartzeko zailtasunak.
- Batzordeen funtzionamenduaren hainbat zeregin eta itxaropen, lurralde arteko kontsentsurik gabe.

## ERRAZTAILEAK

- Lurraldekako plan soziosanitario operatiboak egiteko gida eskura izatea.
- Plan horiek bateratzeko lantalde egonkorra.

## 11. Proiektua: Finantzaketa egonkorreko markoa


### HELBURUA

Eragile soziosanitarioen artean, finantzaketa egonkorreko markoa garatzea.

### LANTALDEA

Proiektu hau lurraldeko batzorde soziosanitarioak egituratu dituzten eragile soziosanitario instituzionalek garatu dute, bai eta Osasuneko lurraldeko Delegazioek eta Osakidetzak, eta foru-aldundietako eta Udaletako (EUDEL) kompetentzia soziala duten sailek ere. Koordinazio soziosanitarioaren parte-hartzea izan dute planifikazio eta laguntza-lanetan.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA



### GARAPEN-MAILA

Akordio soziosanitarioak formalizatzeko esparruan, EASIEek lurralde-maila "funtsean, operatiboa, eta, proiektuak aurrera eramateko, eta, lurraldeko behar eta idiosinkrasiaren arabera, beharrezkoak diren hitzarmenak eta akordioak sinatzeko, ahalduntze nahikoa zuela" esan arren, adierazi zuten formulen desberdintasuna eta homogeneotasun handiago baten beharra zegoela, baliabideak finantzatzeko irtenbideetan. Horrela, Farmazia Zuzendaritzak egindako proposamenen gaitasuna gailendu eta horiek indartu nahi dituzte. Adibide gisa, 2015ean, Zaharren Egoitzetan soilik, 4.2 milioi euro garbi aurreztu ziren.

Finantzaketa egonkorreko markoa garatzea izan da ibilbide irregularrena izan duten proiektuetako bat, lurraldeen arteko aldeak direla-eta, eta % 25-% 50 inguruko betetze-maila izan du. Hala, 2013-2016 denbora-tartean sinatu diren hitzarmenei erreparatuz, finantzaketa egonkorreko markoaren garapenak **% 38ko betetze-maila** izan du.

| Eginkizunaren izena   | Betetze %   |
|---|-------------|
| 3L AKORDIO SOZIOSANITARIOAK FORMALIZATZEA                     | % 60        |
| <b>3.3. AGENTEEN FINANTZAKETA EGONKORREKO MARKOA GARATZEA</b> | <b>% 38</b> |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## OZTOPOAK

- Esparru soziosanitarioaren berezko finantzaketarik eza.
- Esparru soziosanitarioaren finantzaketa-formulak berritzeko beharra.
- Homogeneotasun handiagoaren eta lurralde arteko kontsentsuaren beharra, finantzaketa-irtenbideetarako.

## ERRAZTAILEAK

- Arreta soziosanitarioarekin lotutako erakundeekin hitzarmenak sinatu izana.

## 4I: Arreta soziosanitarioa xede-kolektiboetan

### LABURPENA

4. Ildo Estrategikoak EASIEtan aurreikusi zituzten xede-kolektiboekin bat egiten zuten bost egiteko aurreikusten zituen. Aurrerago dagoen taulan ikus daitekeen eran, 4. Ildo Estrategikoak **% 46ko betetze-maila** izan du, oro har.

“Beste kolektibo” batzuei zuzendutako ekintza-ildoak aurreikusitako multzotik gutxien garatu dena izan da (% 17ko betetze-maila). Multzo honetan, gehien garatu duten ildoak “premia bereziko haurren” kolektiboek zuzendutakoa izan da (% 77).

| Eginkizunaren izena   | Betetze %   |
|---|-------------|
| <b>4I XEDE KOLEKTIBOETAN ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATZEKO PLANA</b>                   | <b>% 46</b> |
| <b>4.1. NAHASMENDU MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA</b>                            | <b>% 53</b> |
| <b>4.2. BAZTERTUTA ETA BABESGABE GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA</b> | <b>% 40</b> |
| <b>4.3. DESGAITASUNA EDO/ETA MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA</b>            | <b>% 36</b> |
| <b>4.4. PREMIA BEREZIAK DAUZKATEN HAURENTZAKO ARRETA</b>                              | <b>% 77</b> |
| <b>4.5. BESTE KOLEKTIBO BATZUENTZAKO ARRETA</b>                                       | <b>% 25</b> |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

Jarraian, 12., 13., 14., 15. eta 16. proiektuak ageri dira. Horietako bakoitzak barne hartzen duen azpiekintzen inguruko xehetasunak ditu.

## 12. Proiektua: Nahasmendu mentala


### HELBURUA

Lurralde Historiko bakoitzeko osasun mentalaren esparruko zerbitzu soziosanitarioen prestazioei buruzko lurralde-mapa bat egitea. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari Euskadiko osasun mentaleko estrategian aurreikusitako prestazioen homogeneotasunerako proposamen bat egitea, epe-luzeko paziente psikiatrikoak normalizatutako egoitza-egituretara ekartzen jarraitzea, eta berariazko kolektiboentzat tratamenduak garatzea; nahasmendu mental larriak edo desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat, besteak beste.

### LANTALDEA

Ilido honen garapenean hainbat eragilek hartu dute parte. Horien artean, aipatzekoa da Osakidetza osasun mentaleko eta asistentzia psikiatrikoko koordinazioaren eta Euskadiko osasun mentaleko aholku kontseiluaren eginkizuna. Euskadiko osasun mentaleko sarearen egiturek gidatutako proiektuen jarraipen-lan bateratua egin dute horiek. Aipatzekoa da Osakidetza, Foru Aldundien eta hirugarren sektorearen eginkizuna ere. Halaber, lantalde soziosanitarioak laguntza teknikoa ematearen ardura du.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA

| Nahasmendumentala  | Eragina  |
|--|--|
| Hasiera: 2013<br>Amaiera: 2016   |  |
| <b>Mugarriak</b>   |  |
| <ul style="list-style-type: none"><li>1. Zaldibar eta Bermeoko ospitaleetan egonaldi luzeko 112 ohe kentzea.</li><li>2. Lurralde-mapa: Bizkaiko eta Gipuzkoako osasun mentaleko atlasa, DESDE – LTC 2.0 tresna erabilita.</li><li>3. Lurralde-mapak berrikusi eta eguneratzea, eta Arabako OMSra zabaltzea.</li><li>4. Barrualde-Galdakaoko ESiren osasun mentaleko plan osoa eta Bizkaiko osasun mentaleko sarea sortzea. Integrazio-eredua.</li><li>5. Euskadiko osasun mentaleko aholkularitza-batzordeko lantaldearen dokumentua, osasun mentaleko integrazio-ereduari buruzkoa.</li><li>6. TML eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen arretarako BOMSren lantaldea eta eredua, Ezkerraldea eremuan (Ezkerraldeko ESI eta Barakaldo-Sestaoko San Eloy ESI)</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Egonaldi luzeko 112 ohe kentzea.</li><li>▪ Bizkaiko eta Gipuzkoako osasun mentaleko atlasa.</li><li>▪ Barrualde-Galdakaoko ESiren osasun mentaleko plan integrala.</li><li>▪ EAEko osasun mentaleko integrazio-eredua.</li><li>▪ TML eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen arretarako BOMSren lantaldea eta eredua, Ezkerraldea eremuan</li></ul> |
|   |  |

## GARAPEN-MAILA

Aurrerago dagoen taulan ikus daitekeen eran, **nahasmendu mentala duten pertsonen** kolektiboentzako aurreikusitako ekintzen **betetze-maila % 53koa** izan da.

| Eginkizunaren izena   | betetze %   |
|---|-------------|
| <b>4I XEDE KOLEKTIBOETAN ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATZEKO PLANA</b>   | <b>% 46</b> |
| <b>4.1. NAHASMENDU MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA</b>  | <b>% 53</b> |
| Lurralde Historiko bakoitzeko osasun mentalaren esparruko zerbitzu soziosanitarioen prestazioei buruzko lurralde-mapa bat | % 66        |
| ASEKri Euskadiko SMko estrategiaren prestazioak eta erkidego-eredua homogeneizatzeko proposamena egitea,                  | % 25        |
| <b><i>Txostenaren aurreikuspenen jarraipena eta ebaluazioa egitea</i></b>   | <b>% 25</b> |
| Egoitza-egituretan, epe luzeko paziente psikiatrikoak erakundez aldatzeko aurrerapausoak egitea                           | % 20        |
| Nahasmendu mentala edo desgaitasun intelektuala duten pertsonen kolektiboentzako tratamenduak sortzea                     | % 100       |

**\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

Aurreikusitako ekintzetan lehena izan da zerbitzu soziosanitarioei buruzko lurralde-mapei dagokiena, eta horrek **% 66ko betetze-maila** izan du. Egun, lurralde guztietako mapak eginda izatea aurreikusi dute.

Euskadiko Osasun Mentaleko strategiaren prestazioen homogeneousutasuna lortzeko Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari egindako proposamenak eta erkidegoaren ereduak **% 25eko** garapen-maila izan dute. Barrualde-Galdakao ESiko Osasun mentaleko plan integrala eta Euskadiko Osasun Mentaleko Aholku Kontseiluko lantaldearen dokumentua bete direla esan daiteke.

Hirugarren ekintzari dagokionez, guztira desinstituzionalizatutako ohe kopurua 112 ohekoa da 2013-2015 denbora-tartean. Beraz, ekintza horrek **% 20ko** betetze-maila izan du.

Berariazko kolektiboentzako eta **nahasmendu mental larria eta desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako tratamenduen garapenak % 100eko** betetze-maila izan du. Halaber, osasun mentaleko arreta, lehen mailako arreta eta desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako egoitzak koordinatzen dituen esku-hartzeko ereduak erabili dute. Proiektu hau 2014. urtetik garatu dute, eta haren eboluzioa egiaztagarria da; izan ere, Barakaldo-Sestao/ San Eloy ESrekin eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearekin batera egindako bottom up proiektua da, eta programa-kontratuak finantzatu eta ebaluatzen du.

## OZTOPOAK

- Ikuspegi eta prestazioen homogeneousutasun handiagoa garatu behar da Lurralde Historiko bakoitzeko osasun mentaleko sareetan.
- Egonaldi luzeko ospitale-egiturak desinstituzionalizatzeko eta eraldatzeko sustapen urria.

## **ERRAZTAILEAK**

- Integrazio funtzionaleko proiektuak ESlen eta osasun mentaleko sareen artean.
- Aholkularitzarako egitura organikoak: Euskadiko Osasun Mentaleko Aholku Kontseilua.



### 13. Proiektua: Bazterketa eta babesgabetasun arriskua

Aurrerago dagoen taulan ikus daitekeen eran, kolektibo honentzat hamar azpiekintza planteatu zituzten, orotara. Hamar horietatik sei ez dira bete. Bazterketa eta babesgabetasun arriskuan dauden pertsonen dagokien ekintza-ildoak batez beste **% 40ko betetze-maila** izan du.

| Eginkizunaren izena   | Betetze %    |
|---|--------------|
| <b>4I XEDE KOLEKTIBOETAN ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATZEKO PLANA</b>   | <b>% 46</b>  |
| <b>4.2. BAZTERTUTA ETA BABESGABE GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA</b>   | <b>% 40</b>  |
| Kolektibo horri gizarte eta osasun-baliabideak jasotzea galarazten dioten arazoei buruzko txostena  | % 0          |
| Bazterketen kasuan esku hartzeko protokolo soziosanitarioak diseinatzea. Horiek baliabideen mapa eta erreferenteak izango dituzte.              | % 0          |
| <b>- Lurralde Historiko bakoitzean protokoloak prestatzea eta proiektu pilotuak zabaltzea</b>   | <b>% 0</b>   |
| <b>- Proiektu pilotu horiek formalki ebaluatzea</b>   | <b>% 0</b>   |
| Gizartetik baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten pertsonentzako arretan gizarte-zerbitzuen arloko eta hezkuntzako             | % 0          |
| Kontrola behar duten eta etxebizitzarik ez duten pertsonen arretarako laguntza-zerbitzuak indartzea   | % 0          |
| Sozializazio-maila txikiko pertsonentzat eskakizun-maila txikiko mekanismo soziosanitarioen beharra zenbaterainokoa den neurtzea                | % 0          |
| Haurrak babesteko sareari laguntza emateko programak zenbateraino diren beharrezkoak neurtzea   | % 0          |
| Arriskuan edo babesik gabe dauden edo tratu txarrak jasotzen dituzten umeen egoerak aurrez ikustea eta horietan esku hartzea                    | % 100        |
| <b>Egungo protokoloak biltzea, jarraitzea eta ebaluatzea</b>  | <b>% 100</b> |
| Mendekotasuna duten pertsonen arreta jasotzea eragozten dieten egoerak, utzikeria eta tratu txarrak aurrez ikustea eta arreta eskaintzea        | % 100        |
| <b>- Adineko pertsonenganako edo mendekotasuna duten pertsonenganako tratu txarrak hautemateko tresna sortzea eta balioestea</b>                | <b>% 100</b> |
| <b>- Adineko pertsonenganako edo mendekotasuna duten pertsonenganako tratu txarrak hautemateko tresna abian jartzea</b>                         | <b>% 100</b> |
| Proiektu pilotuen ebaluazioa  | % 100        |
| Arriskuan edo babesgabe dauden edo tratu txarrak jasotzen dituzten pertsonen genero-indarkeria egoerak aurrez ikustea eta horietan esku hartzea | % 100        |
| <b>Egungo protokoloak biltzea, jarraitzea eta ebaluatzea</b>  | <b>% 100</b> |

**\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

Taulan ageri den eran, mendekotasuna duten pertsonen eta genero-indarkeriaren biktima direnen arrisku-egoeren eta babesgabetasunaren eta umeen tratu txarren prebentzioak eta egoera horietan esku-hartzeak hartu dute kolektibo horrentzako aurreikusitako ekintza.

Honako hauek dira aurreikusi dituzten ekintzak, oraindik ere bete behar direnak:

- Gizartean baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten pertsonen baliabide sanitario eta sozialak lortzea galarazten dizkieten arazoak identifikatzen dituen eta arazo horiei konponbidea bilatzen dien txostena sortzea. Horretarako, diziplina anitzeko lantalde bat osatuko da.
- Bazterketa-egoeretan esku hartzeko protokolo soziosanitarioak zehaztea. Protokolo horietan, baliabideen mapa bat egongo da, eta garbi adieraziko da jardunbide bakoitzeko ardura nor izango duen eta erreferentziako pertsona nor izango den.
- Gizartetik baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten pertsonentzako arretan gizarte-zerbitzuen arloko eta hezkuntzako laguntza-zerbitzuak indartzea.
- Patologia kronikoak dituzten, kontrola behar duten eta bizilekurik ez duten pertsonentzako arretan laguntza-zerbitzuak indartzea.
- Sozializazio-maila txikiko pertsonentzat eskakizun-maila txikiko mekanismo soziosanitarioen beharra zenbaterainokoa den aztertu eta neurria ezartzea.

- Arreta soziosanitarioaren jarraitutasuna bermatze aldera haurrak babesteko sareari laguntza emateko programak zenbateraino diren beharrezko aztertu eta neurria ezartzea.

Haurren eta genero-indarkeriaren biktimen kolektiboari dagokionez, elkarlanerako dauden protokoloak bermatu dira (35), eta horiek lehen mailako ospitaleko arreta eta arreta soziosanitarioko zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak koordinatu dituzte; bai lehen auzialdiko udal-zerbitzuak, bai eta genero-indarkerian eta umeetan espezializatutako foru-zerbitzuak ere. Hala ere, instituzioetan sinatutako protokolo horiek hedapen mugatu bat dute erakundeetan; bai osasun-erakundeetan, bai eta gizarte-erakundeetan ere. Erakunde horiek protokoloen garapena zerbitzu soziosanitarioen koordinazioko zati zehatz baten modura dute.

Genero-indarkeriaren inguruko protokoloak bildu dituzte, Emakundek 2015ean kudeatutako berdintasunaren aldeko Planaren helburu eta instantzia gisa.

Adineko pertsonen bazterketa eta babesgabetasunari dagokionez, **tratu txar fisiko eta ekonomikoko egoerak saihesteko tresnak** garatu dituzte, horien arrisku-faktoreak detektatuz. Jarraian, proiektu honek 2014-2016 bitartean izandako pilotuaren xehetasunak ageri dira.

## HELBURUA

Adineko pertsonen tratu txar fisiko eta ekonomikoko egoerei aurrea hartzea, horien arrisku-faktoreak detektatuz. Adineko pertsonak jasan ditzaketen tratu txar fisiko eta ekonomikoen adierazleak detektatu, eta horien larritasuna hiru mailatan baloratzea: egoera larria, oso larria eta berehala esku-hartzeko egoera. Detektatutako arrisku-egoeretan esku hartzea. Horretarako, esku hartzeko orientabideak proposatzen dira maila bakoitzean.

## LANTALDEA

Proiektu honek partaide kopuru handia hartzen du barnean. Tresna sortzeko lantalde zientifikoa Zahartzaroa-Geriatría eta Gerontologiako Euskal Elkarteak gidatu du, eta udaleko gizarte-zerbitzuetako eta foru sareko gizarte-zerbitzuetako profesionalak parte hartu dute (bai mendekotasunaren balorazioko esparrukoek, bai egoitza-zentroetako eta egoitza-unitate soziosanitariorako arretarako esparrukoek). Halaber, partaide izan dira osasuneko eta ospitaleko larrialdietako zerbitzuetako lehen mailako arretako profesionalak, auzitegi-medikuntzakoak, tutoretza-instituzioetakoak, medikuen elkargokoak, unibertsitatekoak, adineko pertsonen arretarako zentroetako zuzeneko zerbitzuetakoak eta adineko pertsonen tratu txarren aurkako elkartzemugimendukoak.

Proiektua Deustuko unibertsitateko lantaldeak balioztatu eta pilotatu du, eta elkarlanean aritu dira udaleko gizarte-zerbitzuetako eta gizarte-zerbitzu

espezializatuetako (mendekotasunaren baloraziokoak), osasuneko lehen mailako arretako, ospitaleko larraldietako eta Kutxabankeko hainbat profesoalekin.

## MUGARRIAK ETA ERAGINA


### Adineko pertsonen kontrako tratu txar fisiko eta ekonomikoak eragozteko eta detektatzeko prozedura

Hasiera: 2013ko ekaina

Amaiera: Abian

#### Mugarriak

1. Prozedura sortzea
2. Profesoalek parte hartuz, pilotua probatzea, tresna balioesteko.
3. Egoitzetako arduradunak eta osasun-esparruko eta gizarte-zerbitzuetako profesoalak hautatzeko eta prozedura ezarriko duten gizarte-zerbitzuak hautatzeko plana sortzea.
4. Hautatutako arduradunak eta profesoalak prestatzea: 16 orduko 4 ikastaro, eta talde koordinatzailea sortzea. Honako hauek osatuko dute talde hori:
  - Koordinatzaile soziosanitarioak, balioesteko ardura duen kanpoko adituak eta 3 koordinatzailek (bat Lurralde Historiko bakoitzeko)
5. Gainerako profesionalen kateko prestatuntza



### Eragina

- Euskadin, adineko pertsonek jasotzen dituzten tratu txar fisiko eta ekonomikoak aurrez ikusi eta detektatzeko prozedura sortu eta balioestea.
- Ahulezia-egoeran dauden 65 urtetik gorako biztanleria identifikatzea. % 15 inguru dela uste dute.
- Arrisku-faktore nagusiak aztertzea, ekintzak zehazteko.
- Adierazleak atzematea eta arrisku-egoera ebaluatzea (Larria, Oso larria eta Berehalako esku-hartzea).
- Kasuen ebaluazio soziosanitarioaren sistematika ezartzea eta profesionalak koordinatuz egitasmo soziosanitarioak aurrera eramatea.

## GARAPEN-MAILA

Proiektuaren **betetze-maila % 100ekoa** izan da.

## OZTOPOAK

- Kutxako banketxeetan, arrisku-faktore ekonomikoak detektatzeari dagokionez, bertako profesionalentzat zaila da pertsona baten baimena lortzea, gizarte-zerbitzuetako profesional batekin bildu, eta balorazio osoago bat egin ahal izateko.
- Tresna horrek bereziki hautematen ditu gizarte-zerbitzuetako eta ospitaleko larraldietako zerbitzuetako tratu txarren adierazleak. Hala ere, egun, ospitaleetako larraldietako zerbitzuak zailtasunak ditu tresna horren ezarpen orokorra bere gain hartzeko.
- Baimen informatuei dagokienez, zailtasunak daude hainbat esparruren arteko desbideratzeetan.
- Oraindik ere, nahikoa zailtasun dago baterako balorazioa behar duten osasun eta gizarte-esparruak koordinatzeko. Hala, beharrezkoa da arreta soziosanitario koordinatuko eredu berriek barne hartzea adineko pertsonek jasan ditzaketan tratu txarrei aurrea hartzea eta horiek detektatzea. Horrela, arriskuan dauden edo kalteak jasan dituzten pertsoenez bizkor arduratzeko.

## **ERRAZTAILEAK**

- Adineko pertsonen tratu txar fisiko eta ekonomikoko egoerei aurrea hartzeko tresna diseinatu, pilotatu eta ezarri du diziplina anitzeko profesionalek osatutako lantaldeak. Langile kopuru handia garrantzitsua izan da lan hori errazteko.
- Zahartzaroa- Geriatria eta Gerontologiako Euskal Elkartearen parte-hartzea garrantzitsua izan da, prozedura gehiago zabaltzeko.
- Parte hartu duten profesionalek oso ontzat daukate tresna, eta beharrezkotzat jo dute tresna hori modu sistematikoan ezartzea. Izan ere, modu horretara, errazagoa da tresna ezartzea.

## 14. Proiektua: Ezgaitasuna eta/edo mendekotasuna

### LABURPENEA

Jarraian ageri den taulak adierazten duen eran, kolektibo horrentzat lau azpiekintza planteatu zituzten orotara. Horietako bat da dementzia duten pertsonentzako arreta psikogeriatrikoko eredu soziosanitario bat definitzea. Oraindik ere garatu beharra dago hori.

**Ezgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen** kolektiboarentzat aurreikusitako lau azpiekintzek **% 36ko betetze-maila** izan dute.

Gutxien garatu duten azpiekintza izan da autonomia sustatzera eta mendekotasunari aurrea hartzera bideratutako programak bultzatzeari dagokiona. **% 12ko** betetze-maila izan du.

| Eginkizunaren izena   | Betetze %   |
|---|-------------|
| <b>41 XEDE KOLEKTIBOETAN ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATZEKO PLANA</b>   | <b>% 46</b> |
| <b>4.3. DESGAITASUNA EDO/ETA MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA</b>  | <b>% 36</b> |
| Autonomia sustatzera eta mendekotasun-egoerak aurrekustera bideratutako programak bultzatzea  | % 12        |
| - <i>Erakunde sanitarioetako paziente geriatrikoak eta mendekotasuna duten pazientak zaintzeko prozedurak hobetzea</i>                      | % 0         |
| * <i>Langile sanitario eta soziosanitarioak prestatu eta sensibilizatzeko prestakuntza-programa bat sustatzea</i>                           | % 0         |
| * <i>Komunitate mailan, errehabilitazio-tratamenduak sustatzea</i>  | % 0         |
| * <i>Aldakako hausturak sortutako bigarren-mailako mendekotasuna aurrekusteko, beharrezkoak diren zainketa orto-geriatrikoen arduratzea</i> | % 0         |
| - <i>Material orto-protetikoa eta laguntza teknikoko prestazioen katalogoa berrikustea, hutsuneak eta bikoiztasunak hautemateko</i>         | % 0         |
| - <i>Ohiko bizilekuan, hainbat plataforma telematikoa eta informatibo funtzionalki integratzea (BetiOn, Osarean, Telbil...)</i>             | % 35        |
| Hainbat asistentzia-mailatan, zaintzaileentzako prestakuntza eta laguntza-programak garatzea  | % 100       |
| - <i>Zaintzaileen laguntza informaleko sarea osatzen duten pertsonentzako prestakuntza-programak</i>  | % 100       |
| - <i>Ospitaleratutako pertsonen zaintzaileentzako prestakuntza-programak. Alta hartzea erraztuko dute horiek.</i>                           | % 100       |
| Dementzia duten pertsonen arreta psikogeriatrikoko eredu soziosanitarioa definitu eta ezartzea  | % 0         |
| - <i>Dementzia duten pertsonen arreta psikogeriatrikoko eredu soziosanitarioa definitzea</i>  | % 0         |
| - <i>Dementzia duten pertsonen arreta psikogeriatrikoko eredu soziosanitarioa ezartzea</i>  | % 0         |
| - <i>Proiektu pilotuen ebaluazioa</i>   | % 0         |
| Bizitzaren amaierarako, diziplina anitzeko zainketa aringarriko eredu soziosanitario integral eta etikoa adostea                            | % 33        |
| - <i>Zainketa aringarriko planari ekarpen soziosanitarioak egitea</i>   | % 100       |
| - <i>Baliabideen mapatik abiatuz, zainketa aringarriko eredu soziosanitarioa definitzea eta hedatzea</i>                                    | % 0         |
| - <i>Esparru soziosanitarioko hainbat asistentzia-mailatako profesionalak ereduarekin sensibilizatzea eta horretan prestatzea</i>           | % 0         |

\* **Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

Autonomia sustatzera eta mendekotasuneko egoerei aurrea hartzera bideratutako programek **% 35eko betetze-maila** lortu dute. BetiOn eta Osarean telelaguntza-zerbitzuko plataforma informatiboek integrazio funtzionala ezgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonen ohiko etxebizitzetan egiteari zor zaio hori.

Osasun Sailak **2016ko Zainketa Aringarrien Planari** egindako ekarpen eta komentarioei zor zaie **% 33an** estimatutako betetze-maila.

Jarraian, **mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako laguntza-programa** diseinatzeko proiektuaren deskribapena ageri da.

## HELBURUA

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako laguntza-programa bat diseinatzea. Programa horrek EAEko hainbat administrazioek eskaini beharreko prestazioak bateratuko ditu, eta pertsonen autonomia ahalik eta gehien bultzatzeko ikuspegia izango du, bai kontserbazioari dagokionez, bai eta gaitasunen garapenari dagokionez ere; norberaren bizitza ahalik eta gehien kontrolatzea, adibidez.

## LANTALDEA

Proiektu honek partaide kopuru handia izan du; besteak beste, koordinazio soziosanitarioko taldea, udaleko gizarte-zerbitzuak, gizarte-zerbitzu espezializatuak, ospitaleko osasuneko lehen mailako arreta, Osasun Eskola, Osakidetza Adinekoen Abordatze-egitasmoko koordinatzailea, lurraldeko koordinatzaile soziosanitarioak, Osarean-eko erreferente bat, Beti-Oneko erreferente bat, eta sailak proiektu honetan parte hartzeko ardura esleitu zion osasun-kudeaketako masterreko ikasle bat.

## MUGARRIAK ETA ERAGINA


### Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzako laguntza-plana

Hasiera: 2015eko uztaila

Amaiera: 2016ko abendua

#### Mugarriak

1. Proiektuaren definizioa
2. Landa-lana, esperientziak bilatzeko eta EAEn eta beste AE batzuetan dauden zaintzaileentzako laguntza-programak bilatzeko.
3. Lurralde Historiko bakoitzean lantaldeak definitzea
4. Talde bakoitzarekin bilerak egiten hastea, zaintzaileentzako laguntza-lerroak zehazteko, gabeziak detektatzea eta ASEKek onartu beharreko eskaintza adostea.
5. Mendekotasuna duten Pertsonen Zaintzaileentzako EAEko Laguntza-planaren zirriborroa idaztea eta hori ASEKi aurkeztea.



### Eragina

- Esperientziak eta EAEko eta beste AE batzuetako proiektuak berrikustea.
- DBSko masterrera aurkeztutako proiektuetatik hautatzea, EAEn garatu beharreko proiektuetan ikasleek praktikak egin ditzaten.
- Lurralde Historiko bakoitzean lantaldeak definitzea.
- Mendekotasuna duten Pertsonen Zaintzaileentzako EAEko Laguntza-planaren zirriborroaren proposamena idaztea.
- ASEKi PA-CuDepen proposamena aurkeztea.
- Proiektua hainbat foro soziosanitariotan, zientifikotan eta profesioaletan zabaltzea.

## GARAPEN-MAILA

Hainbat asistentzia-mailak zaintzaileen prestakuntza eta laguntza-programa garatzeko ahalegin handiak egin dira kolektibo horrentzako ildo estrategikoen artean. Taulan balioztatutako **% 100eko** betetze-maila 2016 abendukoa da.

## OZTOPOAK

- Zaintzaileei bideratutako programen hornikuntza bateratua ez izatea erronka izan da, bai eta oztopoa ere, hiru lurraldeetan, proposamen homogeen bat egiten saiatzean. Hala ere, lanean ari dira kontsentsuzko proposamen bat lortzeko eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileen kolektiboarentzako baliabide eta informazio-gida bat sortzeko.

## ERRAZTAILEAK

- Garrantzitsua izan da Deustuko Unibertsitatearen bekadunaren parte-hartzea, mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzako prestakuntza-programen eta prestazioen egoeraren inguruko dokumentu bat sortzeko.
- Halaber, proiektuak arrakasta lortu du lantaldeetara gonbidatutako hainbat profesionalen parte-hartzeari esker.

## 15. Proiektua: Arreta bereziaren beharrizana daukaten umeak

### LABURPENEA

Jarraian ageri den taulan ikus daitekeen eran, arreta bereziaren beharrizana daukaten umeen kolektiboari dagokion 15. proiektuak **% 77ko betetze-maila** izan du.

Gipuzkoa eta Araban, Arreta Goiztiarreko Baloraziorako Taldeak sortu eta bermatzeak zein proiektuen garapenak **% 66ko betetze-maila** izan dute.

**Bizkaian, Beharrian Bereziak dituzten Haurren Arreta Integraturako Prozesuaren (BBHAIP) ebaluazioak, bestetik, % 100eko betetze-maila lortu du.**

| Eginkizunaren izena   | Betetze %    |
|---|--------------|
| <b>4I XEDE KOLEKTIBOETAN ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATZEKO PLANA</b>                               | <b>% 46</b>  |
| <b>4.4. PREMIA BEREZIAK DAUZKATEN HAURRENTZAKO ARRETA</b>   | <b>% 77</b>  |
| EAEko arreta goiztiarreko sarearen dekretu arauemailearen aurreikuspenak ezartzea eta garatzea    | % 77         |
| - <i>Beharrian Bereziak dituzten Haurren Arreta Integraturako Prozesuaren (BBHAIP) ebaluazioa</i> | <b>% 100</b> |
| - <i>AGBTak sortzea eta indartzea</i>   | <b>% 66</b>  |
| - <i>Lurralde bakoitzeko proiektu pilotuak garatzea</i>   | <b>% 66</b>  |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

### HELBURUA

Euskadiko beharrian bereziak dituzten haurren arreta integratuko eredia definitzea. Arreta Goiztiarreko Baloraziorako Taldeak (AGBT) abian jartzea. Lurraldeetan, beharrian bereziak dituzten haurren arreta integratuko eredia modu eraginkorrean ezartzen dela ziurtatzea. Euskadiko Arreta Goiztiarreko Dekretua garatzea.

### LANTALDEA

Proiektu honek partaide kopuru handia hartzen du barnean; besteak beste, foru-aldundietako, toki-erakundeetako, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko eta Osasun Saileko eta Osakidetzako kideak.



## MUGARRIAK ETA ERAGINA


### Behar bereziak dituzten haurrei arreta integratua emateko eredia

Hasiera: 2011

Amaiera: 2016

#### Mugarriak

1. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eredia onartzea.
2. Lurralde Historikoek AGBTak abian jartzea.
3. Lurralde-mailan, modu integralean garatzea
4. *Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 DEKRETUA* onartzea.



#### Eragina

- Arreta Goiztiarreko Eredua definitzea eta EAEn ezagutzera ematea.
- Arreta Goiztiarreko Baloraziorako Taldeak (AGBT) abian jartzea.
- Lurraldeetan eredia garatzea (adibidez, PAINNE, Bizkaian).
- Arreta Goiztiarri buruzko Dekretua onartzea.

## GARAPEN-MAILA

Proiektuaren **betetze-maila % 77koa** izan da.

## OZTOPOAK

- Lurralde Historikoetan hainbat kultura eta sentsibiltate egotea oztopoa izan da tokiko ereduak garatu eta ezartzeko.

## ERRAZTAILEAK

- Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko 13/2016 Dekretua onartu izanak Autonomia Erkidegoetan arreta-ereduak ezarri eta bateratzea sustatu du.
- Bizkaiko arreta goiztiarreko ereduaren eta BBHAIren ibilbideak oso garrantzitsuak izan dira. Garapenerako jardunbide egokien erreferentziatzat hartu, eta beste lurralde-eredu batzuk ezarri direlako.

## 16. Proiektua: Beste kolektibo batzuk

### LABURPENA

Jarraian ageri den taulan ikus daitekeen eran, "beste kolektibo batzuei" dagokien 16. proiektuak **% 25eko betetze-maila** izan du.

Funtsean, gaixotasun arraroak dituzten pertsonen kolektiboarekin aritu dira lanean. Talde honek barne hartzen duen beste kolektiboarentzat, transplanteak jaso dituzten pertsonen kolektiboarentzat, aurreikusitako ekintzei dagokienez, bilerak egin dituzte ALCERekin, eta elkarteko ekitaldietan parte hartu dute, ekintza zehatzik adierazi gabe baina.

Kolektibo horrentzat aurreikusitako beste ekimenen artean, historia klinikoan baliabide-mapa gehitzeko aukera baztertu dute. Izan ere, beharrezko informazioa duen datu-base publiko eta eskuragarria du Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioak (FEDER). Erreduz gainera, mapa alternatibo bat egitea ez litzateke beharrezkoa.

| Eginkizunaren izena  | Betetze %    |
|--|--------------|
| <b>4I XEDE KOLEKTIBOETAN ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATZEKO PLANA</b>          | <b>% 46</b>  |
| <b>4.5. BESTE KOLEKTIBO BATZUENTZAKO ARRETA</b>                              | <b>% 25</b>  |
| Gaixotasun arraroen alorrean dauden baliabide soziosanitarioen mapa egitea   | % 50         |
| <b>- Kaltetuen elkarrekin parte hartuz, lantaldea sortzea</b>                | <b>% 100</b> |
| <b>- Gaixotasun arraroen baliabide soziosanitarioen mapa sortzea (FEDER)</b> | <b>% 0</b>   |
| Baliabideen mapa historia klinikoan sartzea (erakundeak ez zuen onartu)      | -            |
| Lekuz aldatutako pertsonentzako arreta soziosanitarioa sustatzea             | % 0          |

**\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza**

### HELBURUA

Ezohiko gaixotasunak dituzten pertsonen osaturiko lantaldearekin elkarlanerako topaketak dinamizatu eta antolatzea, eta egungo egoeraren eta etorkizuneko erronken diagnostikoa egitea. EAEko Gaixotasun Arraroen Aholkularitza Batzordean parte hartzea. Aholkularitza Batzordearentzat, Gaixotasun Arraroak dituzten pertsonen arretarako ikuspegi soziosanitarioaren inguruko monografikoan elkarlanean aritzea, eta arreta goiztiarraren garrantzia eta koordinazio soziosanitario-erakundeak azpimarratzea. Halaber, ezohiko gaixotasunak ikertzera zuzendutako 2015eko EITB Maratoiarekin elkarlanean aritzea.

### LANTALDEA

Proiektu honen garapenean parte hartu du koordinazio soziosanitarioko taldeak, eta Euskadiko Gaixotasun Arraroen Aholkularitza Batzordean ordezkari izan du. Halaber, Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioak eta gaixotasun arraroak dituzten pertsonen beste erakunde batzuek ere parte hartu dute proiektuaren garapenean.

## MUGARRIAK ETA ERAGINA


### Ezohiko Gaixotasunen Lantaldea (EGL)

Hasiera: 2014

Amaiera: 2015

#### Mugarriak

1. Lantaldea osatzeko bilera egitea
2. EGLetako eta pertsona-erakundeen bilera
3. Ezohiko Gaixotasunen Aholkularitza Batzordearen ikuspegi soziosanitarioaren monografikoa
4. EITBren 2015eko Maratoiarekin elkarlanean aritzea.



### Eragina

- EGLko lantaldea.
- Topaketa kolaboratiboak elkarrekin.
- Ezohiko Gaixotasunen Aholkularitza Batzordearen ikuspegi soziosanitarioaren monografikoa
- EITBren 2015eko Maratoiarekin elkarlanean aritzea.

## GARAPEN-MAILA

Kolektibo horren garapenak **betetze-maila txikia** izan du (% 17koa).

## OZTOPOAK

- Zatiketa eta bertaratze kuantitatibo urria; ondorioz, oso ekintza zehatzak izan dituzte (kasu bat dela eta) eta ikusgaitasuna galdu dute instituzioen aurrean.
- Koordinazio soziosanitario-hezitzaile indartsu baten beharra, kolektiboak sortutako arazoei heltzeko.

## ERRAZTAILEAK

- Oso ikuspegi indartsua izatea, osasunaren arlotik, nodo bidezko koordinazio-egiturarekin, eta gaixotasun arraroen erregistroa ezartzea.
- Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioaren presentzia aktiboa, gizarteari kolektibo horrek dituen problematika eta alternatibak helarazteko.

## 5I: Ikerketa eta berrikuntza soziosanitarioa

### LABURPENA

5. Ildo Estrategikoak sei ekintza aurreikusten zituen orotara. Horietatik bost aurrera eraman dituzte, eta **% 92**ko betetze-maila lortu.

| Eginkizunaren izena   | Betetze %    |
|---|--------------|
| <b>5I PRESTAKUNTZA, IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZAK BESTERENTZEA</b>                    | <b>% 92</b>  |
| <b>5.1. IKERKETA ETA BERRIKUNTZA SOZIOSANITARIOAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA IDAZTEA</b>   | <b>% 100</b> |
| <b>5.2. ETORBIZI PROIEKTUEN JARRAIPENA, LAGUNTZA ETA ITXIERA</b>                            | <b>% 100</b> |
| <b>5.3. ETORBIZI PROIEKTUEN EBALUAZIOA</b>  | <b>% 100</b> |
| <b>5.4. BERRIKUNTZA SOZIOSANITARIOKO FORO EGONKORRA SORTZEA (ERAKUNDEAK EZ ZUEN ONARTU)</b> | -            |
| <b>5.5. IKERKETA SOZIOSANITARIOKO EKIMEN EDO PROIEKTUAK EZAGUTZERA EMATEA</b>               | <b>% 60</b>  |
| <b>5.6. EZAGUTZA AKTIBOKI ZABALTZEA (ekoizpen zientifikoa, foroak, artikulak)</b>           | <b>% 100</b> |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

Jarraian, ildo honen barnean dauden 17., 18. eta 19. proiektuak zehatz ageri dira. 17. proiektuak Etorbizi proiektuen jarraipena egitea eta horiek ixtea du helburu. Horren barruan daude 5.1 eta 5.2 ekintzak. Biek % 100eko betetze-maila lortu dute. 18. proiektuak, berriz, 5.3 ekintza biltzen du. Horrek ere % 100eko betetze-maila lortu du. Azkenik, 19. proiektuak 5.5 eta 5.6 ekintzak ditu.

## 17. Proiektua: Etorbizi proiektuen jarraipena eta itxiera

### HELBURUA

2012ko Etorbizi deialdiko 29 proiektuak kudeatzea, jarraipena egitea, kontrolatzea eta behin betiko ixtea, 2014ko uztailean indarrean zeuden berrikuntza soziosanitarioko proiektuei dagokienez. Halaber, 2014ko uztailean indarrean zeuden bederatzi proiektuak kudeatzea, jarraipena egitea, kontrolatzea eta behin betiko ixtea. Izan ere, horien finantzaketa Etorbizik 2011n emandako zuzeneko laguntzen menpe zegoen.

### LANTALDEA

Funtsean, BIOEFeko (antolakuntza eta kudeaketa-berrikuntza) talde soziosanitarioko profesionalek osatu dute lantaldea, bai eta Administrazioako eta BIOEFeko Zuzendaritzako beste arlo batzuetako arduradunek ere.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA


#### Indarrean dauden Etorbiziren proiektuak ixtea

Hasiera: 2014ko uztaila

Amaiera: 2015eko azaroa

#### Mugarriak

- 1. Kasu horretan, indarrean dauden proiektuen 1. eta 2. txostenak eta eranskinak idaztea
- 2. Indarrean dauden proiektuen informazio fisiko eta elektronikoa eguneratzea
- 3. Jarraipen-txostena idaztea eta proiektuak ixtea



#### Eragina

- 38 ikerketa-proiekturen 1. eta 2. txostenak idaztea.
- Dokumentazioa eguneratzea (datu-base eta txostenak).
- Jarraipen-txostena eta azken txostena idaztea, eta artxibo fisiko eta elektronikoa ixteko auditoria.

### GARAPEN-MAILA

5. Ildoari dagokion hasierako taulan ikus daitekeen eran, 5. Ildo Estrategikoaren barruan dauden lehenengo eta bigarren ekintzetatik 38 Etorbizi proiekturen jarraipena, laguntza eta itxiera diraa. Halaber, ikerketa eta berrikuntza soziosanitarioaren egoeraren inguruko txostena idaztea ere bertan kokatzen da. Bi ekintzek **% 100eko betetze-maila** izan dute.

2014ko uztailen eta 2015eko urrian idatzi zituzten 1 eta 2 txostenak, eta, horrekin batera, Etorbizin indarrean zeuden proiektuen informazio elektronikoa eguneratu zuten.

Etorbizi proiektuen jarraipen-txostena eta itxiera-txostena 2015eko azaroan idatzi zituzten.

| Eginkizunaren izena  | Betetz e % |
|--|------------|
| SI PRESTAKUNTZA, IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZAK BESTERENTZEA                  | % 92       |
| 5.1. IKERKETA ETA BERRIKUNTZA SOZIOSANITARIOAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA IDAZTEA | % 100      |
| 5.2. ETORBIZI PROIEKTUEN JARRAIPENA, LAGUNTZA ETA ITXIERA                          | % 100      |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## ERRAZTAILEAK

- Ikasketa-kurba luzea, dinamika ebolutiboan zein ikerketa-proiektu soziosanitarioen edukietan.
- Ikerketaren deialdiaren inguruko informazioa eta zerbitzariaren informazioa modu argi eta ordenatuan eskaintzea.
- Ezagutzen oinarri zabala zientzia ekoizpen soziosanitarioaren esparruan.
- Ebaluazio-taldearen harreman-profesional ona.

## 18. Proiektua: Etorbizi proiektuen ebaluazioa

### HELBURUA

Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzaren agindua betetzea. Horrek Koordinazio Soziosanitarioko taldeari eskatu dio ex – ante/ex - post azterketa egitea, Etorbiziren ikerketa soziosanitarioko proiektuak burututakoan ebaluatzeko. Horretarako, berriazko ebaluazio tresna prestatu da: “Proiektuak ezartzeko potentziala ebaluatzeko tresna (HPI)”.

### LANTALDEA

BIOEF talde soziosanitarioa arduratu zen tresnaren diseinuaz eta garapenez, bai eta ikerketa-proiektuak ebaluatzeaz eta ondorioen azken txostenaren idazteaz.

Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak eta Euskadiko Koordinatzaile Soziosanitarioek baliozkotzat jo zituzten tresna eta txostena.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA


#### Proiektuak ezartzeko potentziala ebaluatzeko tresna Ikerketa-proiektuen (HPI)

Hasiera: 2014ko urria

Amaiera: 2015eko iraila

#### Mugarriak

1. Deialdia eta ExAnte ebaluazio-irizpideak aztertzea
2. Ikerkuntza sanitario eta soziosanitarioko proiektuentzako lehenagoko eta ondorengo ebaluazio-ereduei buruzko literaturaren berrikusketa ez-sistematikoa
3. Eskalak bateratzea, konparazio sistematizatua egin ahal izateko
4. Proiektuak ezartzeko potentziala ebaluatzeko tresna definitzea
5. 38 ikerketa soziosanitarioko proiektu ebaluatzea



#### Eragina

- Ikerketa soziosanitarioko proiektuak ezartzeko potentziala ebaluatzeko tresna definitzea.
- Etorbiziren 38 ikerketa soziosanitarioko proiektu ebaluatzea.
- Proiektuak ezartzeko potentzialaren ebaluazioaren txostena idaztea.

## GARAPEN-MAILA

5. Ildo Estrategikoan kokaturiko hirugarren ekintza ere inplementazioaren ikuspegitik eraman zuten aurrera, eta, aurreko ekintzen antzera, **% 100eko betetze-maila** lortu zuen.

Atal honetako fitxan ikus daitekeen eran, ekintza hori 2014ko urriaren eta 2015eko irailaren artean egin zuten. Jarduera-ildo honi erantzuna emateko hasi zituzten lanen artean, proiektuak ezartzeko potentziala ebaluatzeko tresnaren definizioa nabarmentzen da. Izan ere, definizio hori sortu zuten arte, ez zegoen EAeko ikerketa soziosanitariora egokitzen zen gisa horretako beste tresnarik.

Etorbizi ikerketa-proiektu multzoaren ebaluazioa 2015eko otsaila eta iraila bitartean egin zuten.

| Eginkizunaren izena   | Betetze %   |
|---|-------------|
| 51 PRESTAKUNTZA, IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZAK BESTERENTZEA | 92%         |
| <b>5.3. ETORBIZI PROIEKTUEN EBALUAZIOA</b>                        | <b>100%</b> |

\*Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## OZTOPOAK

- Euskal testuingurura egokituriko ebaluazio-esparru baten sorrera zaildu zuen koordinazio soziosanitarioko erreferentziako ebaluazio-tresnarik ez egoteak.

## ERRAZTAILEAK

- Berriazko ebaluazio tresna ad hoc sortzea, 2013-2016 esparru estrategikoan ikerketa-proiektu soziosanitarioak ebaluatzeko.
- Etorbizi Fundazioko ikerketa-proiektuek erantsitako balioa eta proiektuak ezartzeko potentziala modu sintetikoan ebaluatzea ahalbidetzen duen informazio-sistema izatea.
- Etorbizi deialdi lehiakorrek dirua jasotzeko irizpide argiek asko erraztu zuten ex-ante ebaluazio-irizpideak ezartzea.
- Ondo definitutako esparru estrategiko bat izateak asko lagundu zuen ex-post ebaluazio-irizpideak ezartzeko.



## 19. Proiektua: Ezagutzak besterentzea eta hedatzea

### HELBURUA


2013-2016 esparru estrategiko soziosanitarioan egindako ekimen eta ikerketa-proiektuetako ezagutzak ezagutarazi eta besterentzea.

Dokumentuak eta artikuluak idatziz, foro eta hitzaldietan parte hartuz, prestakuntza-saioak eta ekitaldi monografikoak antolatuz, batez ere.

### LANTALDEA

Proiektu honetan parte hartu duten eragileak Euskadiko talde soziosanitarioko kideak izan dira.

### MUGARRIAK ETA ERAGINA



### GARAPEN-MAILA

Hurrengo taulan ageri den eran, 5. Ildo Estrategikoan kokaturiko azken bi ekintzek betetze-maila desberdina izan dute. Oro har, inpaktua garrantzitsua izan bada ere, besterendutako kontzeptuak kontuan hartzen baditugu, inpaktu hori erlatiboa izan da.

Ezagutzak, esperientzia eta gaitasunak hedatzera zuzendutako jardueren multzo gisa ulertu beharra dago **ezagutzak besterentzea**. Horrek ezagutzaren

erabilera, aplikazioa eta ustiapena eta I+G+B soziosanitarioko gaitasunak errazteko helburua du. Horrela, eta estrategia soziosanitarioko proiektuen heldutasun-maila kontuan hartuta, uste dute I+G+B soziosanitariora egindako besterentzeak **% 60ko betetze-maila** baino ez duela lortu.

**Ezagutza aktiboki hedatzeko helburuak % 100eko betetze-maila izan du.** Mugarren eta eraginaren atalean ikus daitekeen eran, hedapen-ekintzak ugariak izan dira eta zenbakitan handiak. Proiektu soziosanitarioetan, 214 partaide aktibo izatera heldu dira, orotara. Jarduera hori sei pertsonako talde soziosanitarioak eraman du aurrera.

| Eginkizunaren izena  | Betetze % |
|--|-----------|
| 5I PRESTAKUNTZA, IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZAK BESTERENTZEA          | 92%       |
| 5.5. IKERKETA SOZIOSANITARIOKO EKIMEN EDO PROIEKTUAK EZAGUTZERA EMATEA     | 60%       |
| 5.6. EZAGUTZA AKTIBOKI ZABALTZEA (ekoizpen zientifikoa, foroak, artikulak) | 100%      |

\* Betetze-maila ekintza guztien betetze-mailaren batezbestekoa eginda lortuko dugu, eta EASIEtan definitutako helburu eta adierazleek zehazten dute ekintza bakoitza

## OZTOPOAK

- Instituzio arteko komunikazio-kanalen zailtasunak eta eskasiak besterentzea zaildu dute, gizarte arloan batez ere.

## ERRAZTAILEAK

- Koordinazio soziosanitarioko taldearen ezagutza eta aurretiko esperientzia.
- Zerbitzu soziosanitarioak hornitzen dituzten profesionalen harremanetarako eredu aldatzeko eta hobetzeko borondatea izan da, garatutako egitasmo eta proiektuetan, partaideen parte-hartzea bultzatu duen elementu erraztailea.

## BALORAZIO KUALITATIBOA

EASIEen ebaluazioa egiteko asmoz, talde soziosanitarioak galdetegi bat jaso zuen, ikuspuntu subjektibo batetik eta hainbat kategoriatatik (ikus 1. Eranskina), ildo estrategikoen helburuen garapen-maila zein izan den balioztatzeko. Halaber, horrek, lortutako emaitzak abiapuntu izanik, taldearen bat-etortze eta kohesio-maila ebaluatzeko balio beharko luke.

Laburbildutako datuek (lehenengo zenbaki-zutabea batezbestekoa da, eta bigarren zutabea, desbiderapena) egoera honetan kokatzen gaituzte:

| ILDO ESTRATEGIKOA   | BATEZBESTEKOA | DESBIDERAPENA |
|---|---------------|---------------|
| <b>I1 ZERBITZUEN ZORROA</b>   | <b>7,3</b>    | <b>1,6</b>    |
| <b>I2 INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA</b>                                    | <b>7,2</b>    | <b>2,0</b>    |
| <b>I3 AKORDIO SOZIOSANITARIOAK FORMALIZATZEA</b>                          | <b>6,7</b>    | <b>1,8</b>    |
| <b>I4 XEDE KOLEKTIBOETAN ARRETA SOZIOSANITARIOA GARATZEKO PLANA</b>       | <b>6,6</b>    | <b>2,1</b>    |
| <b>I5 PRESTAKUNTZA, IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZAK BESTERENTZEAK</b> | <b>6,0</b>    | <b>1,7</b>    |
|   | <b>6,8</b>    | <b>1,8</b>    |

Emaitza horien arabera, honako hauek izan dira ondorio nabarmenenak:

- Estrategia erabilgarria delakoaren pertzepzioa islatzen dute, ildo estrategiko soziosanitario guztiak gainditu dituzte, baina batezbestekoak ez ditu ebaluazio-kategorien arteko tentsioak islatzen.
- Lehenengo bi ildoek puntu gehiago lortu dutela ikus daiteke (lan-intentsitate handiagoa), eta azken hiru ildoek, berriz, puntu gutxiago:
  - o 1. eta 2. ildoak gehiago garatu direla ikus daiteke. Horiek kolektiboetan eragin handiagoa izateko beharrezkoak diren tresnak gehitzen dituzte, zeharka.
  - o 1. eta 2. ildoak horrela garatzea bat dator Arretaren espektro profesionaleranzko joera indartsu batekin. Hori arrakasta lortzeko faktore kritikotzat har daiteke.
  - o Gainontzekoekin alderatuta, 4. Ildoan konparaziozko garapena urriagoa dela antzeman daiteke. Ziurrenik, arreta soziosanitarioaren garapenak pertzepzio ahulagoa du biztanlerian.
- Berriz ere erdian jarri beharreko zuzeneko ikuspegi estrategiko baten beharra dagoela adierazi dute, populazioaren planorantz zuzenduko dena. Mikro mailan irudikatu dute.
- Desbiderapen tipikoak txikiak dira, oro har, eta taldearen kohesioa islatzen dute, gai beraren inguruko antzeko pertzepzioei dagokienez.

## ONDORIOAK

Ebaluazioak adierazi du azken hiru urteetan EASIEek **eragin handia** izan dutela Euskadiko asistentzia egitura soziosanitarioan.

Inpaktu hori legegintzako hainbat mugarriz zehaztu dute, hala nola gizarte-zerbitzuen legeak zerbitzuen zorroa onesteak edo arreta goiztiarreko dekretuak, baina bai eta ekimen antolatzaile eta gobernantzako ekimenak ere, hala nola ESlei eta horien eragin-eremuko udalerriei esleitutako **batzorde soziosanitarioak** sortzeak eta osasun eta gizarte-eragileen parte-hartzeak.

Inpaktu hori nabaria da, osasun eta gizarte-arretarako taldeen egunerokotasunean eta organigrametan **arreta soziosanitarioaren inguruko diskurtsoa** ageri delako. Izan ere, RAI-CA tresnaren pareko proiektu sistematikoak 70 euskal udalerritako osasun-zentroetan eta oinarritzko gizarte-zerbitzuetan ezarri dira. Esan beharra dago, halere, analisi honetan, oraindik ere asko dagoela egiteko instituzioen zein arretaren aldetik, bai eta parte-hartze aktiboari eta hiritartasunaren ardurari dagokionez.

Benetako aurrerapena antzeman dugu **gure testuinguruko ikuspegi estrategiko soziosanitarioaren heldutasunean**, egungo ildo estrategikoak mobilizatu eta informatu zituzten oinarriari dagokionez. Tamaina eta sakonera handiko proiektuek ikastaldi horretatik igaro behar izan dute, errealitatearekin bat egiten duten proposamen berriak sortzeko. Arrakastarako aukera handiago dute proposamen horiek, bai eta etorkizunari begira ere. Horien artean daude zerbitzu soziosanitarioen zorroa, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretua eta finantzaketa egonkor eta nahikoa. Instituzioen heldutasun teoriko eta praktikoa horrek gure beharrentzat egokiagoa den egitura instituzional eta asistentziala, ordenatuagoa den zerbitzu-eskaintza, eta diskurtso eta kontsentsu instituzional sendoagoa ekarriko ditu. Horrela, ustez aurreikuspen batzuk bete ez izana edo berandu iritsi izana ikastalditzat jo behar dugu, horrenbestean egoeraren araberakoa izango ez den eta behin betikoagoa izango den esparru bat eraikitzeko.

Bukatzeko, **proiektuen garapenean nolabaiteko asimetria** egon dela aipatu beharra dago. Argi ezarri dira arretarako bitarteko eta tresnen garapenarekin zerikusia duten horiek, eta protagonismo nabarmena izan dute arretarako profesionalek. Kasu horretan, halaber, garapenerako aurreikuspen harmoniko batetik abiatuta, izaera instrumentalagoa duten proiektu batzuei lehentasuna emateko beharra ikusi dugu, izaera zuzen edo definitiboagoa duten beste batzuen aurretik. Proiektu horiek arrakasta lortzeko beharrezko baldintza da hori.

Jarraipen-ildo bat egon behar da ildo estrategiko horien artean, orain artekoetan egon izan den eran. Horrek herritarrenganaino modu argi eta

praktikoagoan iritsi beharko du, eta kasuen koordinazioko kultura-oinarri eta kontsentsu instituzional sendoago batean oinarritu beharko da.

# 1. ERANSKINA. Analisi kualitatiboa. Galdeketa

Galdeketak ildo estrategiko soziosanitario guztien helburuak barnean hartu (1etik 10erako Likert eskala), eta kategoria hauetan banatzen zen. Aztertutako kategoriak gutxi gorabeherakoak dira, eta ariketak informazio biltzea du helburu, eta ez balio zehatz eta zientifikoa ematea.

Kategoriak:

- **HUTSALTASUNA** (ildoak/ekintza ez da ezinbestekotzat jotzen, eta ez da arreta soziosanitarioa garatzeko elementu erabakigarria) zero Likert-a.
- **GARRANTZIA** (ildoak/ekintza funtsezko garrantzi estrategiko eta operatiboko elementua da arreta soziosanitarioaren garapenerako) 10 Likert-a.
  - **INPAKTUA** (ildoak/ekintzak eragin egiaztagarria du, eta berehalako ikusgaitasuna erabiltzaileentzat / profesionalentzat / instituzioetako eta kudeaketako arduradunentzat) Baxua zero Likert-a/ Altua 10 Likert-a.
  - ✓ **POBRETZEA** (ildoak/ekintza gutxi garatu da, ez du lortu testuinguru soziosanitarioko elementurik aldatzea edo, are gehiago, testuinguruaren egoerak okerrera egin du) zero Likert-a.
  - ✓ **GARAPENA** (ildoak/ekintzak proposaturiko helburuak garatzea lortu du, eta, are gehiago, testuinguru soziosanitarioak hobera egin du) 10 Likert-a.
  - **EZJAKINTASUNA** (ildoak/ ekintza ez da jakinarazi, eta erabiltzaileen / profesionalen / instituzioetako eta kudeaketako arduradunen gehiengoak ez du ezagutzen) zero Likert-a.
  - **HEDAPENA** (ildoak/ekintza kontzienteki hedatu da, eta egitasmo bat dauka. Ondorioz, erabiltzaileen / profesionalen / instituzioetako eta kudeaketako arduradunen gehiengoak ezagutzen du). 10 Likert-a.
  - ✓ **ZAILTASUNA** (ildoak/ekintza gutxi hedatu eta/edo bete da, eta bere edukia ez dago argi, nahasgarria eta ulertzeko zaila da erabiltzaileentzat / profesionalentzat / instituzioetako eta kudeaketako arduradunentzat) zero Likert-a.
  - ✓ **SOILTASUNA** (ildoak/ekintza asko hedatu eta/edo bete da, eta erabiltzaileek / profesionalak / instituzioetako eta kudeaketako arduradunek erabilgarritzat, gardentzat eta eskuragarritzat dute) 10 Likert-a.
  - **SINPLETASUNA** (ildoak/ekintzak erreferentzia egiten dio kudeaketa errazeko esparru bati, elkarreragin txikikoa da, eta emaitzak erraz interpretatu daitezke kausa-efektu erlazioko testuinguru batean) zero Likert-a.
  - **KONPLEXUTASUNA** (ildoak/ekintzak erreferentzia egiten dio kausa anitzekoa den, elkarreragin handia duen eta kudeatzeko zaila den esparru bati) 10 Likert-a.
- **NEURRITASUNA** (ildoak/ekintza luzatu daiteke, eta lehenesteko elementu gutxi ditu) zero Likert-a.

- **PREMIA** (ildoak/ ekintza ezin da luzatu, arreta sanitarioko garapenarekin duen erlazioa dela eta. Lehentasun handia ematen zaio) 10 Likert-a.